

25
hh
hik hasi **URTE**

Agustin Mujika 'Takolo'-ri elkarrizketa
Pandemia, krisi ekosoziala eta
hezkuntza

Atzo Domu Santu eta Arimen Eguna;
gaur, Gau Beltza

Nola kokatu ikasturte berrian

Josu Txapartegi

1
5
2



SEGURTASUNA BAI;
ORAIN, PEDAGOGIA



Saguton eta Sagutxin aita-emeak
magia truko sinestezin bat egingo dute,
eta ustez potxingo batera erori den
ilargi zati bat bueltan zerura bidali...



Ez duzu izango
sararen bat ezta?
Ilargi zati hori
arrantzatu nahi nuke
bere kokira itzultzeko,
baina ezin dut.

AURKIBIDEA

GAIA / 10

SEGURTASUNA BAI; ORAIN, PEDAGOGIA

Ikasleak gogotsu itzuli dira eskolara, jarrera onarekin eta, batik bat, lagunak ikusteko irrikaz. Irakasle eta ikastetxeetako zuzendaritza-taldeen artean lehen asteetan kontingentzia-planak ezartzeak xahutu ditu orduak. Kezkaturik eta haserre daude: ez daukate aski baliabide (batik bat giza baliabide) egoerari behar den bezala aurre egiteko.

ELKARRIZKETA / 18

AGUSTIN MUJIKI 'TAKOLO'

Martxoan ikastetxeak itxi ziren, eta baita Euskal Giroitze Barnetegiak ere. Eskolak ireki dira, baina barnetegiak ez. Agustín Mujika 'Takolo' barnetegiaren sorreratik aritu da bertan lanean, 35 urte, eta orain erretiroa hartzeaz zela itxi dira. Ez zaio iruditzen, halere, ziklo baten bukaera denik. Baikor da eta berriro ere irekiko diren esperantza du, beharrak eta eskaerak hor darraitelako.

Argitaratzailea: XANGORIN KOOP. ELK. TXIKIA Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943 37 14 08 ; www.hikhasi.eus; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.eus; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690.

Erredakzioa: Mikel Agirrezabala, Ainhoa Azpiroztz eta Ainara Gorostitzu.

Erredakzio batzordea: Kontxi Aizarna, Joxe Mari Auzmendi, Izarne Garmendia, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Eider Palmou, Leire Saez, Maite Saenz, Xabier Sarasua, Josu Txapartegi, Alazne Ugartetxea, Arantxa Urbe eta Angel Usobiaga.

Aholkulariak: Ane Ablanedo, Nerea Agirre, Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Alex Barandiaran, Alvaro Beñaran, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Lore Erriondo, Gurutze Ezkurdi, Idoia Fernandez, Joxe

Garmendia, Alfredo Hoyuelos, Xabier Isasi, Juanjo Kintela, Irene Lopez-Goñi, Nerea Mendizabal, Karmele Perez Urraza, Matilde Sainz, Nora Salbotx, eta Xabier Tapia.
Administrazioa: Uxue Ugartemendia.
Diseinua: Grafik.

Maketazioa: Xangorin.
Inprimategia: ANtZA S.A.L
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak onetsia [2020-09-29].
Kopurua: 3.400 ale.

Hik Hasiko artikuluek edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. Hik Hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

5 EDITORIALA

Umorez hartuta ere, haserrea azaleratzen da

6 ALBISTEAK

10 GAI NAGUSIA

Segurtasuna bai; orain, pedagogia

18 ELKARRIZKETA

AGUSTIN MUJIKI 'TAKOLO'

"Euskal Giroitze Barnetegiak euskal hezkuntzako irakasleen lanari eta inplikazioari esker mantendu dira"

26 EKARPENAK 1

Pandemia, krisi ekosoziala eta hezkuntza

30 EKARPENAK 2

Atzo Domu Santu eta Arimen Eguna; gaur, Gau Beltza

36 GALDEIDAZU

LARRAITZ MENDIZABAL
Nola kokatu behar du bere burua euskal hezkuntza komunitateak ikasturte honetan?


39 ARGITALPENAK

40 PROPOSAMENA

'Hezkuntza-errealitate berriar jautsi' liburuxka

42 ATZEKO ATETIK

Josu Txapartegi



Umorez hartuta ere, haserrea azaleratzen da

editoriala

KONTRAESANAK ETA INJUSTIZIAK IKASLEEK ERE NOZITZEN DITUZTE. GEHIENA BERAIEK AKASO. EDONOLA ERE, EMATEN DUTENEI —IRAKASLE ZEIN IKASLE— ENTZUN EGIN BEHAR ZAIE, LEHERTU EZ DAITEZEN.



Hasi da COVID-19aren ikasturtea, protokoloz jantzia goitik behera, segurtasuna eta osasuna ipartzat hartuta. Horrek izan du lehentasuna aurreneko asteetan, eta, oro har, gorabeherak gorabehera, ikasturtea martxan jartzea lortu da. Eta are garrantzitsuagoa dena, ikasleak gustura hasi dira, orokorrean begiratuta.

Luparekin gertuago so eginda, ordea, beste bizipen batzuk ikusten dira. ETBko *Barre Libre*a saioko Gorane neskatilak ikusarazi dituen bezala. Ikasturte hasierako bizipenak kontatu ditu 6 urteko Goranek (Aitziber Garmendiak antzetzuta) eta kontatu du burbuiletan daudela, ezin duela Andoitz lagunarekin elkartu eta “triste infinitu” dagoela. Gauza asko aldatu direla dio: lehen “utzi jostailuak zuen lagunei” esaten zietela, eta orain “ez eraman jostailurik etxetik, ezin diezue lagunei ezer utzi”; lehen “dena partekatzen ikasi behar duzue”, eta orain “hamaiketako txikia ekarri, ez eman inori eta dena zeuek jan”; lehen “komunera joan nahi duzunean esan lasai, eskatu andereñori”, eta orain “nire gelako 6B burbuilakooi 10:07an eta 12:18an tokatzen zaigu komunera joatera. Nik atzo ezin izan zuen aguantatu eta 10:05ean pixak alde egin zidan”.

Eta Goranek ez du ulertzen. “Ez dut ulertzen zergatik ezin diodan Andoitz nire hamaiketako eman edo nire jostailuak utzi, baina nire

gurasoak lehengoan taberna bateko terrazan egon ziren lagunekin, eta denek plater bere-tik jan zituzten azeitunak. Eta nik ezin dut musukoa kendu eskolan, baina nire gurasoek tabernako terrazan bai”.

Goranek ez du ulertzen zergatik dituzten eskolan hainbeste muga eta beste leku batzuetan ez. Zergatik dituzten umeez hainbeste muga eta helduek ez. Eta kontraesan horiek haserrea sortzen diote.

Andereño ere estresatuta dabilela dio, “zuek gobernatuko dituenik ez dago”, esanez. Baina Goranek badaki andereño ere ezinean dabilela, gelan iazko haur kopuru bera daudela eta andereño ez dela iristen. Badaki bi andereño egongo balira hobeto moldatuko liratekeela denak, eta lasaiago egongo liratekeela. Eta ez du ulertzen zergatik ez dituzten irakasle gehiago jarri aurtan, edo garbitzaile gehiago komunera sarriago joan ahal izateko, edo jangelako laguntzaile gehiago janaria bero jateko. Badaki hori eskatu dutela eta horregatik esaten dio andereñori lasai egoteko estresatuta ikusten duenean: “Andereño, ez da zure kulpaa. Baina gurea ere ez. Hori gobernuak gobernatu behar du”.

Umeez argi ikusten dute, irakasleek ere bai, garbitzaileek eta jangelako langileek ere bai, aisialdiko hezitzaileek ere bai, gurasoek ere bai. Eta gobernatu behar dutenek?

“Esaten dutenagatik baino, gehiago erakusten dute irakasleek, direnagatik”

Autore ezazaguna



EUSKARAZKO IRAKASKUNTZA BABESTEKO DEIA EGIN DUTE HAINBAT ERAGILEK URRIAREN 10ERAKO BAIONAN



Ipar Euskal Herriko guraso elkarteek eta Euskal Konfederazioak giza kate bat antolatu dute urriaren 10erako Baionan, euskarazko irakaskuntzak Ipar Euskal Herrian bizi dituen erasoak salatzen. Frantziako estatuan hizkuntza gutxituen alde lanean ari diren beste 30 eragilerekin batera egin dute deia. Izan ere, beldur dira Frantziako Hezkuntza Ministerioa ez ote den ari euskarazko irakaskuntzan atzerapausoak emateko bideak irekitzen.

Euskarazko irakaskuntza jasaten ari den erasoak aipatzeko bi adibide jarri dituzte. Lehendabizikoa Hiriburuko (Lapurdi) Baste Quieta eskola publikoko murgiltze esperimendazio proiektua baztertu izana. Are gehiago, murgiltze ereduaren esperimendaziorik ez duela gehiago onartuko erran zuen Hezkuntza Ministerioak. Ikas-Bi eta Biga Bai guraso elkarteek arrazoi ideologikoak ikusten dituzte erabaki horren atzean, azken urteetan egin diren ebaluazio guztiak erakusten baitute osoki euskaraz ikasten ari diren ikasleek emaitza hobeak lortzen dituztela, bai euskaraz eta baita beste ikasgaietan ere.

Ipar Euskal Herriko hautetsi delegazio bat Parisera joan zen Frantziako Hezkuntza Ministerioako kontseilari batekin mintzatzen. Bilkuran ez zuten baiezkorik jaso eta negoziazioekin segitu beharko dutela adierazi zuten hautetsiek. Era berean, Seaskako, eskola girstino elebidunetako eta elebidun publikoko ordezkariak ari dira biltzen orain arteko mobilizazioetan.

Horrez gain, euskarazko irakaskuntzaren alde lanean ari diren eragileek kezka ikusten dute Hezkuntza Ministerioak irakasle euskaldunekin egiten dituen izendapenak: aurten prestakuntzatik atera diren hamabost irakasleetatik hamaika frantsesez irakasteko postuetan izendatuak izan dira, Ipar Euskal Herrian eta Biarnon. Ondorioz, euskarazko irakaskuntzarako irakasle euskaldunak gabe geratzeko arriskua ikusten dute eragileek.

Murgiltze esperimendazio ereduarekiko jarrerak zein irakasle euskaldunen izendatze horiek ikasleek euskaraz ikasteko eta irakasleek euskaraz irakasteko duten eskubidea urratzen dutenez, mobilizazioak egiten jarraituko dute eta urriaren 10ekoa izanen da hurrengoa.

MENDIGORRIKO ESKOLAN D EREDURIK EZ DUTE IZANEN

Mendigorriko gurasoek D ereduaren ezartzearen aldeko auzibidea zabaltzen zuten. Kautelazko neurri gisa 2020-2021 ikasturterako D ereduari hasi ahal izatea eskatu zuten, baina Nafarroako Auzitegi Nagusiak ez du onartu kautelazko neurriaren eskaera. Ondorioz, Mendigorriko Julian Maria Espinal Olcoz ikastetxean haurrak A ereduari soilik matrikulatzeko aukera dago. D ereduari ikasi nahi dutenek Garesera joan behar dute.

Bide judizialak aurrera jarraitzen du eta Nafarroako Auzitegi Nagusiak hartuko du erabakia.

HASI DA COVID-19AK ETA PROTOKOLOEK MARKATUTAKO IKASTURTEA

2020-2021eko ikasturte hasieran matrikulazio datuek ez dute aparteko oihartzunik izan. Musukoek, distantziak, eskuen garbiketak eta protokoloek hartu dute lehentasuna. Iparraldeko, Nafarroako zein EAEko ikasle guztiak izan dute ikasturtea aurrez aurre hasteko aukera, batzuek lehenago eta beste batzuek beranduago. Hainbat ikastetxetan zenbait ikasgela ixteko beharrez aurkitu dira eta egunetik egunera egoera aldatu daitekeela aurreikusita ari dira lanean hezitzaileak.

HIZPIDE IZAN DA

Iturria: Berria egunkaria

HEZKUNTZAKO SINDIKATUEK MOBILIZAZIOEKIN JARRAITUKO DUTE IKASTETXEETARA ITZULERA SEGURUA ETA ADOSTUA ESKATZEKO



Irailaren 15eko grebatik astebetera, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako hezkuntza arloko sindikatuak berriro agertu dira hedabideen aurrean euren aldarrikapenak mahaigaineratzeko. Gustura agertu dira grebak izandako erantzunarekin, “babes zabala” jaso zuela adierazi dutelarik.

Greba aurretik sindikatu bakoitzarekin banaka bildu arren Jokin Bildarratz Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburua, grebaren ondoren ez da elkartu sindikatuetako ordezkariekin. “Ez daukagu solaskiderik eta ez dira gurekin bildu ere egin”, adierazi dute sindikatuetako ordezkariak.

ELA, LAB, Steilas, CC00 eta UGT sindikatuak COVID-19aren pandemiak eskolatan duen eraginari erantzuteko plangintza oso bat eskatzen diote Hezkuntza sailburuari, eta hori gauzatzeko baliabideak ere bai. Grebaren aurretik elkarriketaren alde egindako adierazpenak hutsean geratu direla adierazi dute, sailaren aldetik ez baitute inongo berririk jaso.

Bitartean, ikastetxeetako egoerak ez duela hobera egin diote: “Ikastetxeetan bakartutako gela kopurua gorantz doa, eta eskola barruko transmisio kasuak hasi dira azaleratzen. Osasun neurriak bermatzeko baliabideak planifikatu eta lehenbailehen helarazi ezean, gure eskolatan handitu egingo dira kutsatze arazoak”.

Hori dela eta, sindikatuak mobilizazioekin jarraituko dutela adierazi dute; besteak beste urriaren 2ko manifestazioak Bilbon, Donostian eta Gasteizen, bestelako protesta moldeak eta, agian, berriro greba egitea ere ez dute baztertu.

IKAMA, IKASLEEN ANTOLAKUNDE BERRIA AURKEZTU DUTE

Ikasturte berriarekin batera Euskal Herriko ikasleek antolakunde berria aurkeztu dute: Ikama. “Martxan dagoen ikasleriaren” lanabes berri gisa aurkeztu dute eta “Euskal Herriko hezkuntza ereduak irauli eta gure neurria egindako hezkuntza egitasmoa eraikitzeko antolatu eta borrokatuko dena”.


Jorratu nahi duten ibilbidearen helmuga euskal eskola herritar eta burujabea da, ikasleak erdigunean izango dituen eta herritik eta herriarentzat kudeatuko dena. Egitasmo burujabea, nazionala, publikoa eta askatzailea izanen da. Helmuga horretara iristeko bidea egunerokotasunean eraldaketak egitea dela uste dute.

Ikasle antolakundearen lan ildoak hiru zutabe izango ditu: ikasleen hitza eta erabakiaren aldarria; herritik eta herriarentzat arituko dira; eta jardun hori guztia nazio eta herri eraikuntzaren barruan kokatuko dute.





EUSKARALDIAK IKASTETXEETAN LANTZEKO MATERIALA AURKEZTU DU



Euskaraldia hizkuntza ohiturak aldatzea du xede eta horretan laguntzeko egitasmoen barruan, hezkuntza komunitateari begira unitate didaktikoak osatu ditu. Haur eta nerabeak eragile garrantzitsuak direla jakitun, haiekin lantzeko proposamenak biltzen dira unitateotan. Ikastolen Elkartek, Irrien Lagunek eta Gipuzkoako Urtxintza eskolak prestatu dituzte Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa eta Lanbide Heziketan euskara lantzeko unitate didaktikoak. Materiala hezkuntza sare osoan erabili ahal izateko utzi dute eskuragarri Euskaraldiko webgunean.

Unitateak hiru fasetarako prestatu dira. Hasteko, Euskaraldia baino lehen (irailtik azaroaren 20ra) Euskaraldia girotzeko, egitasmoaren kontzeptuak ezagutzeko eta bigarren edizioaren zabalkundea sustatzeko. Bigarren fasea Euskaraldia irauten bitartean egiteko da (azaroaren 20tik abenduaren 4ra). Euskaraldiaren ariketari eusteko, bidean ager daitezkeen oztopo eta konponbideak aztertzeko eta hizkuntza-ohituren inguruan gogoeta aktibatuzko dago diseinatu fase hau. Eta hirugarren fasea Euskaraldiaren ondoren gauzatzeko da, abenduan. Ariketa egin bitartean bizitakoa du oinarri, eta hizkuntza portaera emankorrak sustatzeko jarduerak osatzea du helburu atal honek.

Unitate didaktiko hauek lantzeko eskoletan irakasle zein ikaslez osatutako talde dinamizatzailea osatzea proposatzen da, "euskaradinamizatzaileak" deitu diotenak. Izan ere, egileen iritzi, hizkuntza praktiken aldaketan haurrek jokatu dezaketen rol aktiboa garrantzitsua da.

Era berean, ahalegin berezi bat egin dute unitate hauek hezkuntza ez-formalera egokituzko, haurrekin modu ludiko eta erakargarrian jarduteko aukera ematen baitu horrek. Asmo horrekin garatu dute *Irria* aldizkariaren ale monografiko bat, urrian kaleratuko dena.

12-18 URTEKO GAZTEENTZAKO ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIAKO BIDEO-LEHIAKETA ANTOLATU DU ELHUYARREK

Urriaren 1etik 31ra bitartean 12-18 urte bitarteko gazteek zientzia eta teknologiko bideo-lehiaketa batean parte hartzeko aukera izanen dute, Elhuyarren eskutik. Banaka zein taldeka, bost minutu baino gutxiago irauten duten bideo zientifikoak eta teknologikoak aurkeztu ahal izango dituzte, esperimentu edo proiektu zientifiko edo teknologiko bati buruzkoa betiere. Gaia guztiz askea da: zientzia ikerketako proiektuak, proiektu teknologikoak, esperimentuak... Gazteek egindako proiektua azaldu beharko dute, zer egin duten eta zergatik kontatuta. Euskaraz, gaztelaniaz edo ingelesez eginikoak izan daitezke.

Sari banaketa azaroan egingo da eta hiru sari banatuko dira: DBH1-2 adin-tartean lehendabizikoa, DBH3-4ean bigarrena eta Batxilergoan hirugarrena. Saria Frantziako Futuroscope parkerako bidaia izango da.

Izena emateko formularioa eta parte hartzeko oinarri guztiak Elhuyar Zientzia Azokaren webgunean daude: <http://zientzia-azoka.elhuyar.eu/albisteak/bideo-lehiaketa>



HIZPIDE IZANGO DA

ABIATU DIRA HIK HASIREN 0-6 ETAPAKO ADITU TITULUAREN 7. ETA 8. PROMOZIOAK ETA PSIKOMOTRIZITATEKO FORMAZIOA

Irailaren 11n hasi ziren aditu-tituluaren 7. promozioko bigarren ikasturtea eta 8. promozioko lehen ikasturtea. Haur Hezkuntzako profesionalen prestakuntzan sakontzeko asmoz, haur txikiekin lanean aritzen diren hezitzaileei zuzendutako bi urteko formazioan zaintzaren garrantzia —bereziki Pikler-Loczyren begirada— eta pedagogia eraldatzaileak aztertuko dituzte hezitzaileek. Bestetik, irailaren 25ean eman zitzaion hasiera Mapi Urrestik bideratzen duen psikomotrizitate erlazionalako urtebeteko formazioari ere.

Aurten, COVID-19aren pandemia dela-eta, hainbat neurriekin eta aldaketekin hasi da ikasturtea. Usurbilgo Udalaren eta Udarregi ikastolaren laguntza izan dugu formazioa aurrera ateratzeko eta Udarregi ikastolan burutuko dira saioak.



‘JIRAFAREN HIZKUNTZA’ IKASTARO BERRIA ESKAINIKO DU ONLINE HIK HASIK

KEB Komunikazio Ez Bortitzean oinarritutako ikastaroa izango da Hik Hasik Nerea Mendizabalekin eskainiko duena. *Jirafaren hizkuntza, eskolako elkarbizitzarako gako* ikastaroan harremanak landuko dira, bereziki eskolako elkarbizitzan sortzen diren egoeretatik abiatuta. Irakatsi nahi dugun guztiaren oinarrian erlazioak daude. Eta harremanak landuz, ikasketa esanguratsurako eta bizitzarako zubateak jarriko dira. Emozioak, harremanak eta ikasketa, horra hor elkarrengan eragina duten hiru elementu; horiek landuko dira ikastaroan. Eskolako egunerokotasunean, ikasle-irakasle harremanetan, irakasle-irakasle arteko erlazioetan eta ikasleek euren artean dituzten hartu-emanetan, erosoago, elkarrengandik hurbilago eta elkar gehiago ulertzen laguntzen du KEBak.

Ikastaroa online izango da, urritik ekainera bitartean 9 online-saio izango dira, 10 bideo/audio eta ikasleekin egiteko hainbat proposamen praktiko. Izena emateko eta informazio gehiago izateko www.hikhasi.eus webgunera jo daiteke.

JIRAFAREN HIZKUNTZA


KOMUNIKAZIO EZ BORTITZA
ESKOLAKO ELKARBIZITZARAKO GAKO

"Irakatsi nahi dugun guztiaren oinarrian erlazioak daude. Harremanak landuz, ikasketa esanguratsuetarako eta bizitzarako zubateak jarriko ditugu".

- ✓ 9 SAIO ONLINE
- ✓ 10 BIDEO/AUDIO
- ✓ IKASLEEKIN EGITEKO PROPOSAMENAK

NEREA MENDIZABAL

€ 330 € (hik hasiko harpideek)
380 € (harpide ez direnek)



HIK HASIK 25. IKASTURTEA HASI DU

1995eko maiatzean *hik hasi* aldizkariaren 0. zenbakiarekin abiatutako proiektuak 25 urte bete ditu. 2020-2021 ikasturtea *hik hasi* aldizkariaren 25. ikasturtea izango da. Urteurrena ospatzeko hainbat ekimen eramango dira aurrera. Ohiko aldizkariaren eta formazioen eskaintzaz gain, formazio berriak, jardunaldiak, argitalpenak, hausnarketarako guneak eta abar. Hurrengo zenbakietan izango duzue informazio gehiago.

25

hh

URTE

hik hasi



Ikasleen artean gogoa, eta irakasleen artean ardura gailendu dira ikasturte hasiera zail honetan. Oro har esanda, ikasleak gogoz itzuli dira, jarrera oso onarekin, neurri berriekiko errespetuz eta, oroz gain, ikaskideak eta lagunak ikusteko irrikaz. Irakasle eta, batik bat, ikastetxeetako zuzendaritza-taldeen artean lehen asteetako kezka koronabirusa saihesteko harturiko neurrien ingurukoa izan da, kontingentzia-planak ezartzeak xahutu ditu orduak. Eta kezkarekin batera kexua eta arrangura datoz, ez daukate aski baliabide (batik bat giza baliabide) egoerari behar den bezala aurre egiteko: aurreko urteetako baliabideekin ekin behar izan diote pandemia baten erdian ikasturteari. Familien artean, zabalagoa da abanikoa, baina, oro har, konfiantzarekin hasi dute kurtsoa.

GAIA: SEGURTASUNA BAI; ORAIN, PEDAGOGIA

Zaila izan da ikasturte hasiera hau; gogoratzen dugunetan zailena, ziur aski. Kurtso berri guztiek berekin dakarten urduritasunari sekulako ziurgabetasuna eta kezka handi bat gehitu zaizkio Euskal Herri luze-zabaleko heziketa-guneetan: ikastetxeetan ezarri den plana nahikoa izango ote da zentroa COVID-19a hedatzeko leku bilaka ez dadin? Tokian tokiko protokoloak betetzeko (Frantziako Gobernuaren Hezkuntza Ministerioak ezarri ditu betebeharrak Ipar Euskal Herrirako; Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak, lurralderako eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoarako), lan mardula egin dute ikastetxe guztiek, eta aldaketa nabarmenak ekarri dituzte neurri berriek: sarrera-irteera mailakatuak eta leku desberdinetan; gezi bidez pasabideak bereiztea; espazio komunak birmoldatzea eta murriztea; familien sarrerak mugatzea; higiena zorroztea; tenperatura hartzeak, burbuila edo bizikidetzataldeak sortzea, haurren artean distantzia mantenaraztea eta berrikuntza deigarrienetako bat irakasleak eta haurrek maskarekin ibiltzera derrigortzea izan da, Lapurdi, Zuberoa eta Nafarroa Beherearen kasuan, 11 urtetik

gorakoek erabili behar dute; Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan 6 urtetik gorakoek eta Nafarroan 6tik gorakoez gain, 3 urtetik gorakoek derrigorrezkoa dute maskara ikastetxeko sarrera-irteeretan, espazio komunetan eta autobusetan.

Iazko ikasturte bukaeran prestatu zituzten eskola gehienek euren neurriko kontingentzia-planak, baina ondoren tokian tokiko administrazioek ezarritako arau berrien arabera, etengabe egokitzen joan dira plana ikastetxeetan, eta abuztuaren azken astera arte ez da zehaztapen argirik izan kontingentzia-planak burutzeko, eta irailean ikasturtea hasirik ere zirkular gehiago jaso dituzte neurriak egokitzeko. Tokian tokiko ikuskaritzek kontingentzia-planak onetsiagatik ere, moldaketak etengabeak dira ikastetxeetan, goizero egiten dira bilerak neurrien egokitasuna zorrozteko, Hernaniko Langile ikastolako zuzendari Gabino Burgoak adierazi duen gisan: “Paperean idatzitakoa praktikan jartzean egunero ari gara moldaketak egiten, dela sarrera-orduak gehiago mailakatzea, edo pilaketak saihesteko neurri gehiago hartzea, esate baterako. Lana ikaragarria da”. Buruhauste handia izan da, oro har, ikastetxe guztientzat agintaritzetatik datozen

GAIA: IKASTURTE HASIERA

Segurtasuna bai; orain, pedagogia



neurriak aplikagarri bilakatzea. Hala adierazi du Oiongo Ramiro de Maeztu eskolako zuzendari Alicia Fernandezek: “Protokoloak ematen du malgutasun batekin joka dezakezula, baina ez da hala, zorrotasun handiarekin jokatu behar da ikuskaritzaren onspena izateko”. Neurriak bete bai, baina ikastetxearen hezkuntza-filosofiari eusteko, Oiongo kasuan, irudimena erabiltzea beharrezko izan dute ikasturteari ongi ekiteko: “Lehen asteetan ikuskaritzak ez zigun uzten familiak gure instalakuntzetan sartzen, eta 2 urteko haurren egokitzapena egiteko beharrezkoa da gurasoak ondoan egoitea. Bada tutoreak hurrekin herriko parke batera atera dira, jostailuak eta mahaiak hartuta, zuhaitz baten azpira. Nola behartuko ditugu, bada, 2 urteko haurrak gelan bakarrik sartzera gurasoak kanpoan utzita?”.

Prebentzio-neurriak ikastetxe bakoitzera egokitzea zail izan da, protokoloak berandu iristean gainera, kontingentzia-plana gauzatu ahal izateko materialik eta, batez ere, giza baliabiderik ez dutelako aski izan ikastetxeek. Horra, **Hik Hasik** elkarriketatu dituen ikastetxe guztietako zuzendaritzek adierazi duten haserrea. Baliabide materialetatik hasita, ikastetxeek nabarmendu dute ez dutela aski bitarteko izan protokoloa betetzeko. “Gutxi eta berandu jaso dugu materiala”, azaldu du Langile ikastolako zuzendariak. Detaile txikietatik (ikastetxe askok eurek erosi behar izan dituzte fpp2 maskara homologatuak) protokoloa

bera betetzea galarazten duten ezintasunetara. “700 ikasleko ikastetxe batera pare bat termometro bakarrik bidali dizkigute”, azaldu du Burgoak. Haiek bezala, ikastetxe publiko askok termometroak, gel hidroalkoholikoak eta maskara homologatuak erosi beharra izan dituzte, Jaurlaritzatik garaiz ez dituztelako nahikoa jaso. “Diru gastua gure bizkar joan da, eta azkenean, protokoloak eskatzen dituen gezi, gel, maskara eta abarrekin dirutza gastatu dugu”, kexatu da Fernandez. “Gabeziak asko dira, eta batzuk oso nabarmenak: distantziak mantentzea, adibidez, ezinezkoa da 24-25eko ratioak ditugunean maila guztietan; ezinezkoa da protokoloa bera betetzea. Ez daukagu lekurik, ezta giza baliabiderik ere ratioak jaitsi eta distantziak mantentzeko”, dio Burgoak. Kanboko Xalbador Kolegioan 28 hurreko ratioak dituzte gela gehienetan, eta badituzte 30-31 hurreko gelak ere, eta are zailagoa zaie, beraz, ikasleen artean protokoloak berak markatzen duen distantzia mantentzea. “Gobernuaren iritzia izan da ikasle guztiak gelara etortzea lehenestea, ratioak 15era jaitsi eta gelak bikoizteko aukerarik ez dugu izan ordea, irakasle kopurua bikoiztea esan nahiko bailuke horrek, eta bide hori ez du ireki nahi izan [Frantziako] Gobernuak”, azaldu du Garikoitz Mujika Xalbador kolegioko zuzendariak. Are gehiago, kontratazio berririk ez, eta gainera, hutsuneak betetzeko zailtasunak izan dituzte ikastetxe ugarietan: Langilen, esate baterako, gero

GAIA: SEGURTASUNA BAI; ORAIN, PEDAGOGIA

bete badira ere, bi irakasleren faltan hasi zuten ikasturtea, eta Xalbadorren egoera berrira egokitzeko errefortzurik ezarri ez, eta gainera, eritasunagatik eskolara joan ezin duen irakasle baten hutsunea betetzeko lehen 7 egunen buruan irekitzen bazen ordeko irakaslea kontratatze bidea, orain 14 egunera atzeratu dute kontratazioa. Giza baliabide falta ikusgarri egin dute Gasteizko Salburuako ikastetxean ere, zuzendaritzako kideek pauso bat aurrera eman zuten eta Eskola Kontseiluaren ezohiko bileran dimisioa eman zuten, ikastetxeak bete gabe zeuzkan bi irakasle hutsune betetzera pasaz zuzendaria eta ikasketa burua, gorputz hezkuntza eta haur hezkuntzako taldeetan, Jaurilaritzari zegozkion eskariak eginda Hezkuntza Saitetik erantzunik jaso gabe baitzeuden irailaren 1etik. Dimisioa publiko egin eta berehala bete zizkieten bi hutsuneak.

Eta horrela, lurraldez lurralde, hamaika dira kasuak. Eusko Jaurilaritzak 1.000 irakasle gehiago ezarriko zituela agindu zuen abuztuaren 28an, baina ikastetxeak kexu dira, eurenera ez dela mila horietarik batere iritsi. Nafar Gobernuak, ostera, garbiketa-zerbitzua indartzea, 183 zainzaile gehiago eta 666 irakasle gehiago kontratatuko zituela iragarri zuen abuztuan, baina irailean sindikatuak adierazi dute 173 hezitzaile bakarrik kontratatu direla (Carlos Gimeno hezkuntzak kontseilariak argitu zuen 666 kontratazio horietatik 183 ekainean kontratatu zirela; 173 postu abuztuan atera zirela eta 310 aurrerago zehaztuko zirela ikastetxeen beharren arabera).

Gabezia horek guztiak gizarteratu eta administrazioari esku hartzeko exijitzeko, protestak egin dituzte irakasleek herrialde guztietan. Irailaren 15ean ELA, LAB, Steilas, CCOO eta UGT sindikatuak deituta greba egin zuten sare publikoan zein itunpekoan Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan, baliabide eta solaskidetzak eske, “Gure ikastetxeetan aurrez aurreko itzulera segurua eta adostua” lelopean. Lan taldeak handitzea eta ordezkapenak lehen egunetik betetzea eskatzen dute, hala nola, ikasleen ratioak jaitea (10-15 ikasle eskatzen dituzte gela bakoitzean eta, aldiz, gaur egun LHn gehienez 25 egon daitezke ikasgelako eskola publikoetan; DBHn 25; eta Batxilergoan berriz, 30); jantoki zerbitzua bermatzea distantzia neurriekin berrantolatuz; curriculum osasun krisiak eragindako errealitateetara egokitzea (adibidez, dolua lantzeko edota irakaskuntza telematikoa jorratzeko) eta osasun arazoak dituzten langileak babestea exijitzen dute eta baita arrakala sozialak desegiteko neurriak hartzea ere (horien artean, euskarari loturiko arrakalak). Irakasleekin batera, garraioetako langileek eta jangeletako langileek ere bat egin zuten greba-deialdiarekin. Izan ere, hainbat ikastetxek ezin izan

dituzte jangelak ireki ere egin, protokoloak zehazten dituen distantziak mantentzeko otorduen txandak gehitzean, ez daukatelako aski profesional haurrak hartzeko.

Sindikatuaren arabera, hezkuntzako langileen % 70ek greba egin zuten irailaren 15ean, eta Hezkuntza Sailak datua apalagoa eman zuen: % 45eko jarraipena izan zuela adierazi zuen. Grebaren bezperan Hezkuntza eragileekin bildu zen Eusko Jaurilaritzako Hezkuntza sailburu berria, Jokin Bildarratz, baliabideen kudeaketaz hitz egiteko, baina esandakoak sindikatuentzat ez ziren aski izan mobilizazioak bertan behera uzteko. Are gehiago, urriaren 2rako mobilizazioak iragarri dituzte.

Nafarroan, berriz, hezkuntza komunitateak foro bat sortu du Hezkuntza Departamentuak ezarri zuen protokoloa komunitatearekin adostu gabea dela salatzen eta ratioak jaitea eta baliabide gehiago kontratatzea aldarrikatu dituzte mobilizazioetan eta haratago, segurtasun-neurriez gain, “ikuspegi zabalagoa izan beharko lukeelako [protokoloak], hala nola, alde emozionala eta pedagogikoa oinarri hartuta”. Iparraldean ere sindikatuak kexu dira: Kati Petrisans SNUIPP irakasle sindikatuko kideak *Berria* egunkariari azaldu zion Frantziako Hezkuntza Ministerioak ez duela osasuna hizpide izan: “Lehentasuna da haurrak ukaitea klaseetan, baina ez da prestakuntza serioirik izan; osasuna ez da aski kontuan hartu”. Besteak beste, aipatu du irakasleei banatutako maskarek ez dutela babesten. Are, gehitu du osasun arazoak dituzten irakasleen egoera ere ez dela gogoan hartu, “salbu, minbizia izanez gero”. Seaskak ere ministerioaren “inprobisazioa, arduragabekeria eta inposizioa” salatu, eta segurtasun neurriak eskatu ditu.

Tentsioa apaltzen, baina "alertan"

Ardura, kezka eta kexuen artean, bada, hasi da kurtsoa eta asteak pasa ahala, urduritasuna baretzen hasia da. Nahiz eta zentroek “alertan” jarraitzen duten. Etengabeko kezka da positibo kasuak gertatu, protokoloak aktibatu eta gelak itxi eta konfinatuak dauden ikasle horiekin eskola nola jarraitu. “Esperoan bezala gaude etengabe, noiz gertatuko zain eta horrek tentsioa dakar”, dio Langileko zuzendariak. Lehen egunean izan zituzten positibo kasuak Oiongo Ramiro de Maeztu eskolan, hasi eta arratsalde hartan bertan jakinarazi zieten ikasleen artean bi positibo kasu izan zirela. “Hasiera oso gogorra izan zen —kontatu du Alicia Fernandez ikastetxe publikoko zuzendariak—. Hasi eta bigarren egunerako protokolo guztiak martxan jarri beharra izan genituen, eta gela bat konfinatu genuen”. Behin ikas-komunitatean PCR proban positibo kasuak daudenean, ikastetxeak ez eta

GAIA: IKASTURTE HASIERA

Segurtasuna, bai; orain, pedagogia

osasan ikuskaritzek dute eskumena. “Gure kasuan, positibo baten ondorioz gela oso bat konfinatu da, baina beste positiboaren ondorioz, konfinamendua ezarri beharrik ez zegoela adierazi ziguten”. Esperientzia gogorra izan dela dio Fernandezek, baina orain, behin konfinatuak zeuden haurrak itzulirik, “lasaiago baina alertan” jarraitzen dutela dio. “Beste haurrak gustura etorri dira, oso gogotsu, eta horri begiratu behar diogu. Ongi daramate maskararena eta arauak oso ongi ari dira errespetatzen, nahiko ongi eta azkar egokitu dira normaltasun honetara”.

Oionen bezala, koronabirus-kasuak egunik egun iritsi dira ikastetxeetara. Amezketako eskolak beranduago ireki behar izan zituen ateak, eta ireki eta astebetara itxi behar izan zuten, berriz, Soralueko institutua (Gipuzkoa), bederatzirakasle bakartu eta ikasleak etxera bidalita. Baigorriko ikastola ere itxi zuten, eta eskualde guztietan daude gelak konfinaturik. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako datuen arabera, irailaren azken astean 280 ikasgela zeuden itxita, 188 ikastetxetan, hau da, ikasgela guztien % 1,59. Nafarroan, Hezkuntza Departamentuak emandako datuen arabera, guztira 4.000 ikasle izan dira konfinatuak eskolak hasi zirenetik hiru asteren buruan, 198 bizikidetza-taldetakoak, nahiz eta horietatik gutxi batzuek soilik eman duten positibo PCR probetan. Gimeno Nafarroako Osasun Publikoaren institutuak egin duen txostena ardatz harturik, adierazi zuen, gainera, eritasuna pairatu duten 14 urte bitarteko haur gehienak familia-testuinguruetan izan direla kutsatuak (% 90, batez beste), eta ez eskola-testuinguruetan.



Oiongo Ramiro de Maeztu eskolan kalera atera ziren haurrak eta irakasleak, 2 urteko umeen egokitzapena gurasoen ondoan egiteko.

Neurri zorrotzekin, baina haurrak, ondoen

Haurren jarrera eta gogoia **Hik Hasik** deitu dituen ikastetxe guztietan nabarmendu dute. “Bizi izan duten egoera eta konfinamendua ikusita, harrituta gaude haurrak zeinen ongi ari diren egokitzen, neurriak betetzeko prest eta kolaboratzeko gogoaz etorri dira”, azpimarratu du Tuterako Argia ikastolako zuzendari Saioa Crespok. “Ikasleak txapela kentzeko moduan erreazionatzen ari dira, baina neurrien gogortasuna aitortzen dute”, azaldu du Xalbador Kolegioko zuzendari Garikoitz Mujikak. Ipar Euskal Herrian maiztzean bueltatu ziren haurrak eskoletara, baina maiztzean taldekatuak zeuden hamabosnaka, batzuk etxean eta besteak gelan ari ziren, eta ekaineko azken astea egin zuten denek elkarrekin: “baldintza gogorretan, baina denok elkarrekin gaude, eta ikasleak gustura daude horrekin”.

Jakitun dira irakasleak haurrei ezarri zaizkien neurriak – bereziki maskara eta distantziamenduak– gogorrek direla haur eta nerabeentzat, horri erantsi behar zaio, gainera, sei hilabetez ez direla ikastetxean egon, askok ez dituztela lagunak apenas ikusi eta sozializazioa arras mugaturik izan dutela. Euskararekin ere atzenduak datoz haur asko, eskolako ateak ixtean euskararenak ere itxi egin baitzaizkie askori sei hilabeteotan. Haurren etorrera zaintzeko, ikastetxe askotan haurren egoera emozionala behatzen ari dira. Hernaniko Langile ikastolan iazko ekainetik erabakia zuten ikasleen alderdi emozioanala berariaz landuko zutela ikasturte hasiera honetan, eta hala ari direla adierazi du karguan berria den Burgoa zuzendariak. “Ustez ondo daude ikasleak, baina sei hilabeteren ondoren emozionalki zainketa berezia egin beharko da, eta horretan dihardute tutoreek, behaketa lana egiten, ondoren aztertu eta zertan esku hartu ikusi ahal izateko”. Tuteran ere lanketa berezia egiten ari dira, eta LHko 4. mailatik aurrera, Nafarroako Gobernuak inkesta bat pasako du haurrak euren bizipenez mintza daitezen, eta emaitzen arabera, esku-hartzeak egingo dira: “Ikasturte hasierako lehen egunetan urduritasuna handiagoa izan da beldurra baino, haurren artean. Eta harritua nago urduritasun hori ere nola gainditu duten. Gerora, ordea, atera daiteke zerbait, haur bakoitzak bere erritmoa dauka, eta adi egon behar dugu”. Egoera emozionalarekin batera, euskararen arrakala artatzen ari dira zentro askotan, eta talde kohesioa lantzeko tailerrak ere egiten ari dira ikastetxe ugarian, “haur bakoitzak bere lekua aurkitu dezan dinamikak egiten ari gara, taldearen kohesioa eta harremanak zaintzeko premia handia baitauekagu orain”, azaldu du Crespok.

GAIA: SEGURTASUNA BAI; ORAIN, PEDAGOGIA



Neurrien artean, haurren artean mantendu beharreko distantzia eta, batez ere, maskararen erabilera luzea da ikasleen artean ezinegon sortzen duen ezaugarria eta irakasle eta familien artean kezka handiena eragiten duena. Kanboko kolegioan herrikoen bertakoez gain, eskualdeko ikasleak hartzen dituzte, eta kolegiara 8:30erako iristeko ordubete lehenago hartzen dute ikasle askok autobusa, eta behin eskolak 16:30ean bukatuta, 17:30ean iristen dira haurrak euren etxeetara, beraz, bazkal-ordua eta gorputz heziketako ordua kenduta, hamar orduz gutxienez maskarekin egoten dira ikasleak: “Denok argi dugu osasun-segurtasuna lehenetsi behar dugula, baina maskara oso gogorra egiten zaie, bai ikasleei eta baita irakasleei ere, zaila baita maskarekin eskola behar den gisan ematea, komunikazio-mailan ikaragarriko zailtasuna eranstean baitu, bereziki hizkuntzak irakastean”. Haur txikiak ez dute maskararik erabili behar haur-eskoletan, baina, hala ere, hezitzaileen eta haurren arteko komunikazioan nabarmen eragiten duela ikusten du Arbizuko Kattuka haur-eskolako zuzendari Eider Gardek: “[Nafarroako] Gobernuak ez du neurtu pedagogia eta emozio mailan maskararen erabilerak zer suposatzen duen. Aurpegiarekin esaten den horrek guztiak berebiziko garrantzia dauka, batez ere haur txikiarekin ari garenean. Begien bitartez bakarrik gauza guztiak adieraztea oso-oso zaila da eta, gainera, hizkuntzaren garapenean haur txikiaren kasuan eragina dauka”. Arbizuz aztertzen ari dira fpp2-maskaren orde, gardenak diren eta funtzio bera egin dezaketen maskara homologatuen erabilera.

Oreka bila

Hobeto ala okerrago, baina behin neurri berrietara ohituta, eta ikastetxeetako osasun-segurtasuna bermatuta, lehen asteak pasatu direnean, beste gogoeta batera iritsi dira ikastetxeak: “Oreka behar dugu osasun-neurrien eta hezkuntza beharrean artean”, azaldu du Gasteizko Zabalzana ikastetxeko ikasketaburu Miren Fernandez de Betoñok. “Osasun-neurriak zaindu behar ditugu, baina mania pertsekutorioa kendu behar dugu, ezin du beldurrak gain hartu eskoletan”. “Orain pedagogia”, dio, Saioa Crespok: “Lehen asteetan dena jan du COVID-19ak, protokoloak hartu digu denbora guztia. Hiru aste pasata, iritsi da momentua gelditu eta ildo pedagogikoari heltzekoa”. Hitz berdintsuak erabili ditu Oiongo eskolako zuzendariak: “Ikasturte hasiera honetan kontingentzia-planak jan ditu erabat gure indarrak. Bestetan, lehenengo asteen pedagogiaz hitz egiteko erabiltzen ditugu aurreneko egunak, ikasturtea antolatze eta irakasleen arteko kohesioa lantzeko. Orain COVID-19ak dena eklipsatu du, burokrasia pila bat eta exijentzia asko izan dugu betetzeko. Honaino; orain haurren beharretan gehiago zentratu behar dugu”. Gauza bera gertatu da Langilen: “Irailean ez gara edukietan eta metodologietan zentratu, kontingentzia-plana eta haurrak nola etorri diren behatzera zentratu gara; orain bestelako egitekoetara jarri behar dugu”.

Protokoloek exijitzen dituzten neurri batzuek, bizikidetzataldeak bereizteak eta distantziamenduek, batez ere, ikas-

GAIA: IKASTURTE HASIERA

Segurtasuna bai, orain pedagogia



irakas metodologian zuzenean eragin die ikastetxe gehienei. “Kurtsoen dinamika pedagogikoa nabarmen kaltetua izaten ari da”, dio Mujikak. Lan kooperatiboan, esate baterako, ikastetxe askok ikusi dituzte ezintasunak, eta batzuek bertan behera utzi dituzte. “Distantziek zaildu egiten dute, baina talde lanak eta binakako lanak egiten ditugu, baina ahalik eta motzenak eta ez iraunkorki”, azaldu du Kanboko kolegioko zuzendariak. Oionen erdibidetik jotzea erabaki dute hasieratik: distantziak mantendu bai, baina, hala ere, ikasleak taldeka jarri dituzte proiektu kooperatiboekin jarraitzeko, baina oztopoak beste alor batzuetan aurkitu dituzte: “Haur Hezkuntzan zirkulazio librea dugu eta adinak nahasten ditugu, espazioka ekosistemak sortzen ditugu eta haurrak euren interesaren arabera pasatzen dira ekosistema batetik bestera, baina orain, burbuila-taldeak mantentze aldera, ezin ditugu 3, 4 eta 5 urteko haurrak nahastu eta zirkulazio librean aritu”. Argia ikastolan ere, antzeko arazoarekin topo egin dute, LH1 eta 2koak zirkulazio librean aritzen baitziren elkarrekin arratsaldeko saioetan, “baina oraingoz bertan behera utzi beharko dugu”.

Arbizuko Kattuka haur-eskolak lehendik daukan lan-ildoari sendo eustea lortu du, “gure helburua hasieratik izan da beti bezala hastea, gauza gehiegi aldatu gabe”, adierazi du haur-eskolako zuzendari Eider Gardek. “Neurriak hartu ditugu: sarrera-irteerak berrantolatatu ditugu, garbiketa errefortzatu dugu (horretarako udalak langile bat gehiago jarri digu)... baina lan egiteko modua eta filosofia ez dugu aldatu nahi izan; jatorduetan, esate baterako, piklerianoak gara, eta hala jarraitzen dugu, txikienei magalean banaka jaten ematen, eta handiagoek gelan bazkaltzen dute”. Hala ere, lan gutzia ezin dute lehen bezala egin, behin harrera-

garaia pasata gurasoak haur-eskolako ateraino bakarrik sar litezke eta ez geletara, “eta horrek bai ukitzen gaitu, gure leloa familiak nahi eta behar dutenean sartzea baita”. Lan ildoari eutsi dioten arren, haurren artean nabaritu dute konfinamenduaren ondorioak: “Irailero haur berriak jasotzen ditugu, eta badakigu harrera-garaia epe latza izan daitekeela beraiantzako emozio eta atxikimendumailan; baina ezagutzen ez genuen erreakzio bat ere ikusten ari gara, eskola ezagutu bai, eta 6 hilabetez etorri gabe egon diren ume batzuk gustura ari dira etortzen, baina beste batzuei asko ari zai kostatzen itzulera, eta konfinamenduaren ondorio bezala ikusten dugu”. Nafar Gobernuak protokoloak ezarri dituenean 0-3 etapa ez duela aintzat hartu uste du Gardek: “0-3a ez dute sekula serio hartu, eta oraingoan ere ez; Nafarroan ziklo bakarra izan da errefortzurik ezarri ez dutena. Ateak irekitzen lehen zikloa izan ginen [ekainean zabaldu zituzten ateak haur-eskolek] eta protokoloak jasotzen azkenak izan gara.”

Oreka bilatzeko lanetan ari dira orain ikastetxeak, beldurra ez dadin pedagogiaren gaineratik egon: “Hori da gehien kezkatzen nauena –adierazi du Mujikak–. Argi dugu osasuna dela lehenetsi behar duguna, baina irakaskuntzari ematen zaizkion helburuak zaindu behar ditugu. Klaseen dinamika ezartzen badugu ikasleak banaka lerroan, elkarrekin eztabaidarik eta trukerik gabe, nork egingo du aurrera eritmo horretan? Autonomia-gaitasun handiak dituzten ikasleen gutxiengo batek, eta haiei ere kalte egingo lieke. Irakaskuntza eta ikaste-prozesua nonbaitetik pasatzen baldin bada, iritzi truketik, ikuspuntu desberdinak partekatuz, elkarren artean lan egitetik, egoerak bizitzetik eta elkar entzuzetik da, eta momentu honetan, osasun berme

GAIA: SEGURTASUNA BAI; ORAIN, PEDAGOGIA

horiek lortu nahian jarrita ditugu neurriekin hori dena pikutara doa. Eta hori arazo potolo bat izango da egoera hau luzaro atxikitzen bada”. Pedagogiari lehentasuna ematearekin batera, eta inboluzio metodologikoetan erortzeko arriskua mahai gainean jartzearekin batera, haurtzaroarekiko begirada fintzeko unea da, Garderen aburuz: “Oso irudi gogorrek ikusten ari gara eskoletan eta politikariek hausnartu egin beharko lukete zer egiten ari diren haurtzaroarekin, haurtzaroari ezin baitzaio bere sena kendu”. Vicenç Arnaiz pedagogo katalanaren hitzak ekarri ditu gogora Gardek: “Egoera honetan gauzak beste modu batean egin behar ditugu, baina ondo egin behar ditugu”. “Kontua da –erantsi du Mujikak–, osasuna lehenetsiz irakaskuntzak zer baliabide beharko lituzke bere helburuak lortzeko? Gobernu frantsesak ez du errefortzurik eman, atzerapausoak egin ditu”.

Ikastetxeek argi dute, irakasleen eta batik batik zuzendaritza-taldeek bizkar gelditu dela egoeraren zailtasuna eta konplexutasuna kudeatzea, eta “irakasleen inplikazioagatik eta familiek erakutsitako konfiantzagatik” hasi dutela ikasturtea hasi duten bezain ongi, ez administrazioetatik jasotako babesagatik. “Irakasleak oso-oso-oso ondo etorri dira –nabarmendu du Oiongo eskolako zuzendariak–. Konpromiso handiko jendea daukagu, eta ikasturte honetan inoiz baino garrantzitsuagoa izango da konpromiso hori. Daukagun irakasle-taldearekin tetriza egin dugu, eta ikastetxean ditugun baliabide guztiak erabiliz bikoizketak egiten ari gara taldeak txikitzeko”. Pozik baina era berean kezkatuta eta gainezka ikusten ditu Zabalganako ikasketaburuak bere ikastetxeko irakasleak. “Pozik daude ez zutelako etxean gelditu nahi, gogorra izan da konfinamendu-garaian bizi izan duguna, eta etxetik lan egitea ez da batere erraza izan; beraz, orain eskertzen dute ikasleekiko zuzeneko harremana”. Baina era berean, kezkatuta ikusten ditu, “baldintzak ez dira errazak, eta guztion osasuna dago lehen lerroan, eta alde horretatik gogorra ari da izaten”. Euren osasunaz eta lan baldintzez harago doa irakasleen kezka eta haserrea, “haurtzaroaren kontzeptua dago jokoan”, dio Eider Gardek: “COVID-19aren izenean gauza asko moztu eta mugatu dira”. Kezka baino gehiago ere, haserrea eta inpotentzia ere nabariak dira irakasleen artean, “ez daukagu aski baliabide eta gainera murrizketak ditugu, salbuespen egoera honetan nahiko genukeen baldintzetan lan egin ahal izateko”, azaldu du Mujikak. Irakasle gehiagorekin egoera zail hau eramangarriagoa izango zela ziur da Burgoa ere, “faltan gaude, pertsonal gehiago behar dugu, oso-oso justu gabilza; lana bikoiztu egin zaigu eta lehengo plantilla berdina daukagu. Estu eta larri gabilza”.

Familien jarrera da nabarmendu duten beste puntuetako bat. Zuritik beltzerako aniztasuna badago ere, sendiek eskoletan konfiantza eskaini dietela azaldu dute ikastetxeek, eta gertutasuna eta egoeraren azalpenak ematea eskertu diete. Izan dira kekek familien aldetik, maskararen erabileragatik, batik batik, baina izan da beste aldean, beldurragatik haurrak ikastetxera ez eramatea erabaki duen familiarik ere. Koiuntura honek perfil berri bat ekarri du, beraz, COVID-19agatik eskolatuko ez diren haurren. Eta berez hezitzaileena ez litzatekeen lan bat erantsi zaie profesionali: “Agindua daukagu COVID-19agatik haurra eskolara ez eramatea erabaki duten kasuetan absentismo gisa jakinarazi behar dugula, eta familiak badaki justifikazioa behar duela bestela, eta guk ikastetxean izan dugun kasuan, familia asumitzeko prest agertu da gizarte zerbitzukoak eurekin harremanetan jarriko direla”, azaldu du Fernandez de Betoñok.

Eta zuzendaritza-taldeek lana ere funtsezkoa ari da izaten, eszenatoki zail honetan aurrera egiteko. Lan ordu amaigabeak ez zaizkie aski egoerari tamaina hartzeko eta bizitzen ari diren tentsioa nabarmena da zuzendari guztien hitzetan. Izan ere, martxotik irailera, sei hilabeteetan erabaki diren neurri ia guztiak irakasleen eta irakasleen bizkar ezarri dira (distantziak, maskarak, ilarak, tenperatura-hartzeak, bizikidetzataldeak bereiztea, sarrera-irteerak eta korridoreak antolatzea), eta horren guztiaren ardurak zuzendaritza-taldeek izan dute, Nafarroan hainbat ziklotan egin diren ratio-doikuntzak eta agindutako irakasle errefortzu batzuk salbu, administrazioek hartutako neurriak ez baitira irakasleen kopuruak egokitzearen aldekoak izan, irakasle talde txikiagoekin lana era kontrolatuagoan egiteko. Lan-orduteki luzeaz aparte, estresa gailentzen ari da zuzendaritza-taldeetan. Gainezka daudela erantzun dute guztiak. “Orduak eta orduak sartzen ari gara, eta tentsioa da ez garelako iristen”, dio Zabalganako ikasketaburuak. Koronabirus-kasuak hedatzeko kezka gainera, eta egunero kontingentzia-plana errebisatu eta fintzeaz landa nahiz tokian tokian suertatzen ari diren irakasleen hutsuneak betetzeko zailtasunez aparte, burokrazia-lan itzela daukatela dio Fernandez de Betoñok. “Estres puntua oso handia da”, dio Gardek. Eta bat dator Argia ikastolako zuzendaria: “Antolaketa lana ikeragarria ari da izaten, eta betebeharrak erregulatzen saiatzen ari gara, estresa saihesteko”. Berria da zuzendaritza-karguan Crespo, baita Langileko Burgoa eta Mujika Xalbadorrekoa ere. “Ez dakit beste ikasturte hasierako lana nolakoa izaten den –dio Burgoak–, baina aurtengoa oso-oso zaila ari da izaten, delegarizatutako eta berrituzeguneetatik eskakizunak beste urteetako berdina dira, eta horrez gain, pandemiaren kudeaketa ari zaigu egokitzen; oso zaila. Baina pasako da, horrela ezin dugu kurtso osoa egin”.



“Euskal Giroitze Barnetegiak euskal hezkuntzako irakasleen lanari eta inplikazioari esker mantendu dira”

ELKARRIZKETA:

AGUSTIN

MUJIKA

‘TAKOLO’

DINAMIZATZAILEA ETA HEZITZAILEA

35 urteko ibilbidea egin ondoren, Euskal Girozte Barnetegiak itxi dituzte Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan. “Zurekin batera hasi eta bukatu da barnetegiaren zikloa”, esan diote Agustin Mujikari, Eubako lehendabiziko barnetegiaren hasi baitzen, eta erretiroa hartu aurretik Segurakoan azken txanda egitera zihoala itxi baitzituzten. Berarekin

jaiotako proiektu bat berarekin bukatzeak izugarriko pena ematen dio, eta ez duela horrela izan behar dio. Horregatik, berriz irekiko direla pentsatu nahi du, eta baikor dago, “beti baikor”. Berreskuratu egin behar direla dio ozen, bai irakasleengatik eta bai ikasleengatik. “Gora zihoan gauza batek gorantz joan behar du”.



1982an euskararen erabilera arautzeko Oinarrizko Legea egin zen eta zera zioen: ikasketak bukatzean, bi hizkuntza ofizialak jakin behar dituzte ikasleek nahitaez. 1983an, agindu bat etorri zen, esanez Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak beharrezko neurriak hartuko zituela eskola giroan euskararen erabilera bermatzeko. 1985ean, hori oinarri hartuta, Hezkuntza Sailak Euskal Girotze Barnetegiak eratu zituen. 2020an, itxi egin ditu. Zer diozu?

Aurtengo martxoan koronabirusa dela-eta eskolak itxi zituztenean, barnetegiak ere itxi egin zituzten. Gogoratzen naiz Gasteizko umeak heldu zirela Segurako barnetegira, eta itxi egin behar genuela jakin genuenean, umeei azaldu genien egoera. Ez zuten itzuli nahi, guk ere ez, baina motxillak ireki ere egin gabe sartu ziren berriz ere autobusean, denok negarrez geundelarik. Niretzat, gainera, oso momentu berezia izan zen, erretiroa hartu aurreko nire azken txanda baitzen.

Konfinamendu garaian eta martxotik ekainera bitartean, txanda guztiak kendu ziren, eta ezin genuen etxetik lan egin. Beldur ginen ikasturte honetan egingo ote ziren edo ez, han bertan egiten baitute lo, han jaten baitute eta kontaktua baitago. Eta, azkenean,

ezezkoa erabaki zen uztailean.

Ixteko erabakia koronabirusaren egoerari lotutakoa da; hau da, ez dira itxi eskaerarik ez dagoelako edo funtzionatzen ez dutelako, justu kontrakoa gertatzen baita. Are gehiago, seigarren barnetegia irekitzekotan ginen.

Horregatik, ni baikor nago, eta espero dut ikasturte bateko kontua izatea. Nik baikorra izan nahi dut. 35 urteko programa hau ezin da horrela geratu, eta gauza bera Nolegako (Normalizazio Legearen Garapena) beste programekin: Urruzuno, artistak eskolara, Ulibarri...

Noski, beti dago arriskua, gero berriro zerotik hasi behar izateko arriskua. Zeren kentzen dena kenduta dago, eta, gero, kosta egiten da berriro hastea. Nolegak programa interesgarriak zituen eskuetan klusterrakoeekin, euskararen dinamizazioan dabiltzan adituekin... Nora joango da hori dena? Zer gertatuko da?

Nik erretiroa hartu dut, baina barnetegietan nire lankide izandakoak eskolara itzuli dira une honetan, eta han pasatuko dute ikasturtea, bakoitzak bere eskolan. Nik esan diet hor egongo naizela, eta, dauden eskoletan laguntza behar badute, eskatzeko. Ikasturtean zehar elkartzeko asmoa dugu, taldea mantentzeko. Orain,

ikasturte hasieran, irakasleek buruan daukatena da nola kudeatu eskola; baina, hori pixka bat pasatzen denean eta gauzak lasaitzen direnean, euskaldun sentimendua duen edonor ohartuko da berriro ireki behar direla barnetegiak. Nik baikorra izan nahi dut. Ezin da 35 urteko programa hau bertan behera utzi. Indartu egin behar da, kontzientzia sortu, lan egiteko go-goia duten gazteak topatu, eta berriro arraunak hartu.

35 urteko programa hau ezin dela horrela geratu diozu. Zer eskaintzen dute, bada, barnetegiak, hain beharrezko eta onuragarri izateko?

Barnetegiak zabaldu egiten du eskolak duen esparrua. Eskolak ematen duen esparrua oso itxia da, oso programatuta dago, eta orduan, askotan, irakasleak oso lotuta daude. Muga asko daude eskolan. Barnetegietan, aldiz, beste baldintza batzuk sortzen dira. Programa ez dago horren zehaztuta; egiten, moldatzen eta egokitzen joaten gara, probatzen. Horrez gain, umeak beste modu batera daude, hogeita lau ordu elkarrekin; ez dute notaren presio hori, eta denok gaude gusturago, era positiboan, giro onean, desinhibituta. Haiekin gozatu, mimatu eta maitatu egiten ditugu, eta hor dago aldea; beste ikuspuntu

bat ematen dio hezkuntzari, eta beste harreman mota bat sortzen da.

Euskara ikasteaz gain, euskara erabiltzeko aukera eman behar zaie umeei eta gazteei, eta horixe egiten da barnetegietan. Hitz egiten ezin da ikasi hitz egin gabe, igeri egiten ikasi ezin den bezala uretan murgildu gabe. Barnetegietan, euskararen uretan murgiltzen laguntzen diegu, elkarbizitza eta gertuko harremana eskainiz. Barnetegietan igarotzen dituzten egunetan, jolas egiten dugu, sentitu, gozatu, hitz egin, komunikatu, abestu, motibatu, dantza, mozorrotu, lagundu, hausnartu, mendian ibili, natura ezagutu, harritu, alaitu, irribarre egin, maitatu, saiatu, kontu-kontari egon, errespetatu, bizi... eta horiek denak eginez, euskararekiko harreman berri bat antzematen dute, girotu egiten dira, eta euskara barneratzen dute.

Barnetegien proiektua abiatu aurretik, irakasle gisa aritu zinen lanean. Eskolaren muga horiek bizi izan zenituen?

Bai, halaxe da. Nire inguruan, horrelako eskaintza baten beharra ikusten nuen. 1981-1982 ikasturtean bukatu nituen ikasketak Donostiako seminarioan, eta euskara irakasleen lehen promoziokoa izan nintzen. Ondoren, Lasarte-Oriako eskola publikoan, nire herrian, hasi nintzen lanean, eta hiru urte egin nituen han. Euskarako ikasgaia ematen nuen, eta, une hartan, eskola guztian euskaraz genekien irakasleak hiru bakarrik ginen. *Idoneo* deitzen ziguten; bakoitzak bost gelaren ardura geneukan, bakoitza hogeita hamar ume ingurukoa, eta Euskara ikasgai gisa irakasten genuen. Garai hartan, Lasarte-Oriako giroa oso erdalduna zen; jendetza etorri zen kanpotik Michelin lantegian lan egitera, eta ume asko zeuden. Hogeita bost umeren artean, bat edo bi Zubietakoak izaten ziren, eta haien etxeko hizkuntza euskara zen; baina gainerako guztiena ez. Eta euskaraz ez jakiteaz gain, euskal kulturatik oso aparte bizi ziren.

Egoera horretan hasi ginen eskolan irratia egiten eta Olentzero antolatzen, besteak beste. Umeek ez zekiten zer zen baserritarraren arropa, txapela, blusa... Ez zegoen horrelakorik

egiteko ohiturarik eskola publikoan. Eta Lasarte-Orian, eskola publikora joaten ziren ume gehienak. Horrela, bada, Olentzero ospatzen hasi ginen, eta gogoratzen dut Zumaburuko plaza umez beteta, denak Olentzero etorri zain... Olentzero etorri bitartean, zerbait egin behar zen animatzeko, eta hor sortu zen Takolo pailazoa.

Horrez gain, ni eskolako irakasle gaztea nintzen, bizarrarekin, progresista, euskalduna... Eta konexio handia zuten ikasleek nirekin: mendira joaten ziren nirekin, kanpinera, Leitzaranagera... Horixe zen Lasarte-Oriako giroa.

Lasarte-Orian hiru urte egon ondoren, Amezketara joan nintzen, eta han, urtebete egon nintzen. Aterpetxe bat zegoen han, eta buruari bueltak ematen hasi nintzen jada. “Eskola ondo dago, baina... beste zerbait behar dugu”. Haurrentzako beste esparru bat behar zela ikusten nuen, hau da, barnetegi bat non haurrak etorri eta gurekin egongo ziren, eta, hizkuntza lantzeaz aparte, beste gauza batzuk ikasiko zituzten: Aralar mendia, artzainak... baserriko mundu hori. Hizkuntza eta kultura, biak.

Idea horiekin nenbilela, proiektu bat egin nuen, eta Lakuara joan nintzen. Iñaki Artolarekin eta Joxe Mari Berasategirekin elkartu nintzen han, eta haiek ere antzeko zerbait egin nahi zutelaren esan zidaten. Barnetegi bat egitekotan ziren Bizkaiko Zornotza herriko Euba auzoan. Eta horrela, Amezketako lana utzi, eta Euban hasi nintzen, Abadiñoko Rosa Marirekin eta Derioko Luis Marirekin batera. “Egizue” esan ziguten, eta han hasi ginen, izugarritzko motibazioarekin eta euskalzaletasunarekin. Ni neu egunero joaten nintzen Lasarte-Oriatik Eubara, eta autoa eduki arte, goizeko 6:00etan tren bat hartuz Durangora eta gero han beste bat Eubaraino, edota autostop eginez autobidean.

Testuinguru eta giro horretan, nola antolatu ziren barnetegiak? Zein adineko haurrentzat?

Barnetegien filosofia edo funtzionamendua zera da: zenbait herritako umeak elkartzea aterpetxe batean eta, egun batzuetan, elkarrekin bizi-

“Barnetegiak ixteko erabakia koronabirusaren egoerari lotutakoa da; hau da, ez dira itxi eskaerarik ez dagoelako edo funtzionatzen ez dutelako, justu kontrakoa gertatzen baita”

“Nik baikorra izan nahi dut. Ezin da 35 urteko programa hau bertan behera utzi. Indartu egin behar da eta berriro arraunak hartu”

“Eskolaz aparte, haurrentzako beste esparru bat behar zela ikusten nuen, barnetegi bat non haurrak etorri eta gurekin egongo ziren, eta, hizkuntza lantzeaz aparte, beste gauza batzuk ikasiko zituzten: Aralar mendia, artzainak... baserriko mundu hori. Hizkuntza eta kultura, biak”



tzea eta gozatzea euskaraz.

Esan bezala, lehendabizikoa Euban ireki zen, 1985ean, eta, izan zituen emaitza onak ikusita, beste bi ireki ziren Gipuzkoan 1990ean: Gaztelun eta Alkizan. Urte hartan bertan, Eubakoa Plentziako aterpetxera pasatu zen. Ordurako, sendotzen ari zen barnetegien sarea, eta laugarrena iritsi zen, Elgoibarko Aubixa baserrian ireki zena. 1996an, Seguran zabaldu zen bosgarrena. Eta horrekin, barnetegien sarea osatuta geratu zen. Orain ginen seigarrena irekitzekoak, Muxikan (Bizkaia).

Bosteko kopuruari eutsi arren, hainbat lekualdaketa izan dira urteotan eta azken urteotan Barrian, Elgoibarren, Hondarribian, Lemoizen eta Seguran eduki ditugu barnetegiak.

Lekuez gain, esperientziak erakutsi ahala, beste hainbat gauza ere aldatuz joan gara. Esate baterako, hasieran, hamabi egunekoak ziren egonaldiak. Bi aste jarraian egiten genituen, asteburua barne. Ondoren, bost egunekoak egiten hasi ginen, eta azken urteotan, lau egunekoak; bosgarrena barnetegiko hezitzaileon arteko bilerak eta prestakuntza egiteko erabili izan dugu, gure artean egoteko, ba-

tzuetan barnetegi berekoak bakarrik eta, besteetan, barnetegi guztietakoak, orotara hogeitaz lagunetik gora. Guk geuk hainbat ekintza egiten ditugu, eta, gero, horien gainean hizketan aritzen gara. Hezitzaileon arteko harremanak estutzeko eta taldea indartzeko balio du horrek, zeren gure artean ere kimika sortzea lortu behar dugu, gero hurrekin lortzeko. Horrez gain, denbora hori gure esperientzia zabaltzeko, liburuak egiteko eta abar baliatu dugu. Alde horretatik, positiboa izan da guretzat denbora hartzea, baina jabetzen gara, aldi berean, umeek egun bat galtzen dutela.

Hasieran, OHOk 3. mailatik 8. mailara bitarteko ikasleei eskaintzen zitzairen barnetegietara joateko aukera. Hori ere aldatu egin zen, hezkuntza-sistemaren antolaketarekin batera, eta geroztik, Lehen Hezkuntzakoei eta DBHkoei, biei, eskaini zaie. Beraz, Lehen Hezkuntzakoekin bakarrik hasi ginen, baina, gero, Bigarren Hezkuntzara ere zabaldu ginen. Gainera, eskaera gehiago jaso dugu azken urteotan Bigarren Hezkuntzatik.

Bost barnetegietatik bitan (Plentzia eta Elgoibar), eskaintza DBHkoei egiten genien; beste bitan, Lehen

Hezkuntzakoei (Alkiza eta Segura), eta Barrian, biei. Orduan, barnetegi bakoitza bere etapan espezializatu zen, eta, nire ustez, hori ona izan zen, ez baita gauza bera LHrako edo DBHrako programa egitea: baliabideak desberdinak dira, abesti motak ere bai... Dena da desberdina: mendi-irteerak, solasaldiak (solaserako tarteak), ekintzen erritmoa...

Gero, hori ere aldatu egin genuen, ikusi genuelako hezitzaile eta barnetegi guztiak maila guztietan trebeak izatea zela egokiena. Beraz, barnetegi guztiak adin guztietako umeentzat izatera pasatu ziren, eta horrela egon gara azken urteetan: ikasturteko hasierako txandak DBHkoentzat, eta, ikasturte amaierakoak, LHkoentzat. Dena dela, nik uste dut egokiagoa zela aurreko eskema, etapa horietako haurrak eta gazteak bereizten zituena.

Nolako bilakaera izan du eskaerak?

Eskaera igoz joan da, eta hala jarraitu du azken unera arte. Lehen, eskola bateko maila batean hiru gela baldin bazeuden, gela batek soilik zeukan etortzeko aukera. Azken boladan, posible zen ikasturte batean hiru gelak etortzea: talde bat Segurara, beste bat Elgoibarrera eta beste bat Barriara. Horrek eskaera igotzea ekarri zuen. Hasieran 200 eskaera baldin baziren, azken boladan 400 inguru.

Bost barnetegi izan ditugu, bakoitzean 28 txanda egin izan ditugu ikasturte batean, eta gehienez 150 eskaera jaso zitzakeen. Beste 200 eskaera gelditzen ziren urtero erantzun gabe. Eskaera badago; beraz, beharra badago.

Bestalde, azken urteotan DBHko eskaera igo egin da, eta LHkoa jaitsi. Datu hori ere hor dago, DBHn behar handiagoa dago, nonbait.

Barnetegietan erabili izan duzun metodologia ez da eskolako, antz handiagoa du udalekuekin. Eskolaren jardun zurrundetik atera, eta egiteko modu berri bat sortu duzue.

Bai, hala esan dezakegu. Barnetegien helburu nagusia hizkuntza izan da, umei eta gazteei euskaraz bizitzeko eta euskal giroan murgiltzeko aukera eskaintzea. Hala, etorri izan diren umeen euskara maila ez da berdi-

na izan, eta bakoitzari bere behar linguistikoaren arabera erantzun nahi izan zaio. Hasierako 12 eguneko txandetan, hainbat lekutako 100 ume elkartzeko ziren, A, B eta D eredueta-koak. A ereduak Euskara ikasgai modura zeukaten, eta oso azaleko kontaktua zuten euskararekin. B ereduaren ere, hasierako urteak zirenez, oraindik gutxi zekiten. D ereduak ikastoletakoak eta herri euskaldunetako eskola publikokoak ziren. Horiek euskaraz bizi ziren etxean. Beraz, hitz-jarioa aberasteko ekintzak egiten genituen batzuekin, esamoldeak eta esaera zaharrak landu, eta abar. Eta beste batzuekin, mimikaz hitz egiten genuen, poliki-poliki. Zeren, A eredu-ko batzuei euskaraz egin, eta erantzuna “¿este qué dice?” izaten zen.

Testuinguru horretan, gakoa umeei hitz eginaraztea da; hori izan da gure metodologiaren ardatza. Jolasak eta tailerrak eginez, umeei berba egitea. Esate baterako, hauxe izan daiteke nor-nork lantzeko ekintza bat: bi pertsonak antzerkia egitea, bata taxilaria eta bestea autoan sartu dena, eta beren arteko elkarrizketan lantzea nor-nori-nork: “eramango nauzu?” “Bai, eramango zai...tut”. “Eraman nazakezu?” “Bai, eramán zaitzaket”.

Beste bi bitarteko interesgarri aldizkaria eta irratia dira: albisteak bildu eta, zerbait idatzi eta presatu ondoren, besteei erakutsi.

Dantza eta abestiak ere beti erabili izan ditugu. Urteen poderioz eta esperientzia pilatu ahala, lan-tresna berriak bilatuz joan gara. Gogoratzen naiz bolada batean makina handi batzuk egin genituela, sekulako tramankuluak, harrigarriak; botoiari eman, argia piztu eta ez dakit zer martxan jartzen zen, telebistan ikusten ari balira bezala. Teknologia berriak baliabide gisa erabiltzen genituen, eta, urte batzuetan, horren inguruan aritu ginen. Gaur egun, mugikorra, Instagram eta beste hainbat daude, eta teknologiaren erabilera aldatu eta egokitu egin da.

Ekintzen eta jolasen, bitartez hizketan egitera bultzatzen dituzue ikasleak. Hori da muina?

Bai, komunikazioa da gakoa, haiek mintzatzea. Egoerak edo dena dela-

koak planteatzea eta solas egitea, hori behar baitute, txandaka hitz egiten ikastea, errespetuz... Nik uste dut hori dela lantzeko dagoen gauzetako bat, agian eskoletan egiten ez dena edo egin ezin dena. Geletan, isilik egoten dira, irakasleak hitz egiten du batik bat. Irakasle askok esaten digute ikasleei hemen entzun ondoren: “Uste nuen gehiago zekiela”. Zergatik diote hori? Gelan ez dutelako ikasleek hitz egiten, irakasleak baizik. Barnetegian, aldiz, hizkuntza funtzionala denean, hizkuntza erabiltzen hasten direnean, orduan ikusten da zer gaitasun duten benetan. Ez daude ohituta, eta are gutxiago haien sentimenduez hitz egitera. Azaletik hitz egiten dute, eta ez, barruarekin berba egin behar da: galdetu, eman bi minutu pentsatzeko eta gero mintzatu. Barnetegietan, hitza ematen diegu: zuk zer diozu? Eta zuk? Eta zuk? Elkarrekin komunikatzeko bideak zabaltzen ditugu.

Kontua ez da jolasteagatik jolastea. Jolastea ondo dago, beti, baina, gero, etorri eta ekarpenak egin behar dira: zer gertatu da, nola egon zara zu, zer sentitu duzu, zer ikusi duzu, zer ikasi dugu... Jolasteaz gain, egin galdera batzuk. Eta egoera horiek denak hizkuntza lantzeko baliabideak, euskaraz hitz egiten dutelako eta gu isilik gaudelako.

A, B eta D ereduak aipatu dituzu. Nola ikusten duzu oraindik ere ereduaren sistema horri eustea? Egokia iruditzen zaizu?

Uste dut A eta B ez ditugula behar. Eta D ereduaren kasuan, kontuan hartu behar dugu leku guztietan ez dela berdina. Ez da gauza bere etxean euskaraz egiten duenarentzat edo egiten ez duenarentzat. Ez da gauza bera lagunekin euskaraz egiten duenarentzat edo egiten ez duenarentzat. Dena da D, baina ez da D bera. Kontuan hartu behar da hori.

Horrelako egonaldietan, harremanak garrantzitsuak dira. Nola landu duzue alderdi hori? Zer garrantzi eman diozue?

Harremanak kudeatzea funtsezko alderdia da barnetegian, eta baita bakoitzari behar duen autoestimua ematea ere. Denok gara garrantzitsuak,

“Euskara ikasteaz gain, euskara erabiltzeko aukera eman behar zaie umeei eta gazteei, eta horixe egiten da barnetegietan”

“Hizkuntzatik abiatutako esperientzia bat hizkuntza baino askoz gehiago bihurtu da: harremanak, bizipenak...”

“Edukiak bai, baina ikasleek hitz egin behar dute, eta, horretarako, esparruak eman behar zaizkie eskolan. Horrek ekarriko du gehiago erabiltzea”

“Lehendabizi kontzientzia, eta gero, titulua. Irakasle lanposturako titulua behar da, baina lanpostu horretan, hizkuntza maitatu egin behar da, ez da nomina irabazteko lana soilik. Kontzientzia behar da”



ditugun balioekin, eta hori kudeatzen saiatzen gara. Liderrak beste zeregin batzuetan jartzen ditugu, eta askotari-ko ekintzak egiten ditugu, bakoitzak bere balioak azaltzeko. Hori euskaraz egin beharra handicap bat izan daiteke haientzat, eta beraz, erronka bat da denontzat.

Beti dago lehia gizarte honetan, eta, nahiz eta gure ekintzetan hori ez bultzatu, sor daiteke. Eta, sortzen bada, hori kudeatu egin behar da, noski. Horrelakoetan, umea aparte hartu, eta buelta bat ematera joan ohi gara berarekin, eta hitz egiten dugu: bai berak eta baita guk ere.

Giro afektiboa behar dute, arreta. Gerturatu, eta galdetu egin behar zaie, eta garrantzitsua da geu ere irekitzea, geuk ere gure gauzak kontatzea, gero haiek ere bereak kontatzeko. Geuk ere geurea kontatzeak konplizitatea sortzen du. Eta horrela izan behar du, geuk ere emanez, ez eskatuz soilik. Eskolan, distantzia handi-koetan ohituta daude, eta horrela ez da lortzen gerturatzea. Barnetegian, gerturatzeke uneak sortzen dira, eta horiek baliatu behar dira behar den kimika lortzeko. Eta eskertu egiten dute. Niri horrek izugarri ematen dit,

puztu egiten naiz.

Ume bakoitza motxilarekin etortzen da, motxila psikologikoarekin. Hori ireki behar dugu? Ez da hobea ondo pasatzea eta kito? Guk uste dugu motxila irekita ez diogula kalte gehiago egingo, eta barrua askatu nahi duenari aukera ematen diogu. Horrela, lehenengo, barrukoa botako du, eta horrek beste onarpen eta elkartasun bat ekarriko ditu taldera. Psikobarne-
tegia izan daiteke.

Hizkuntzatik abiatutako esperientzia bat hizkuntza baino askoz gehiago bihurtu da: hizkuntza, harremanak, bizipenak...

Barnetegira umeak ez ezik irakasleak ere etortzen dira. Zer dira zuentzat irakasleak?

Irakasleak prest daude barnetegira etortzeko, bakoitzak bere etxea eta familia utzita, eta hori da nik txalotzen dudana. Gure kasuan, gure lana egiten ari gara, militantzia handia behar duena, baina umeekin etortzen diren irakasleena askoz handiagoa da. Hasieran, 12 egunerako etortzen ziren, etxea eta etxeokoa utzita, asteburuak barne, eta ez zeukaten konpentsazio ekonomikorik. Gauza

bera, bost eta lau eguneko egonaldi-
etan. Eta horrela, 35 urtean. Hori ez da normala, hori zerbait historikoa da. 12.000 irakasle inguru pasatu dira urteotan, eta izugarria da hori.

Barnetegiak hezkuntzako edo hezi-
ketaren munduko altxorak dira. Ez dut esaten guk egin dugulako, irakasleek ere esaten dute. Euskal hezkuntzako irakasleen arteko proiektu bat da, eta horri esker mantendu da, irakasleen lanari eta inplikazioari esker.

Eta zer da barnetegia haientzat?

Barnetegiak gurasoentzat, umeentzat eta gizartearentzat esanguratsua baldin badira, are gehiago irakasleentzat. Barnetegian, beste era batera ikusten dituzte euren ikasleak, beste era batera egoten dira umeak, beste era bateko heziketa jasotzen dute, irakasleek beste esparru batzuetan ezagutzen dituzte ikasleak (jangelan, logelan, gauzez, egunez...), egoera gehiago bizi dituzte elkarrekin... Nik uste dut hemen, irakasleak ez, hezitzaileak garela. Irakaslea irakasten duena da, eta hezitzailea, beste gauza bat, eta hori ikusten dute hemen. Hezitzaileak, irakasteaz gain, heziketa dauka buruan, ez edukiak soilik. Irakatsi ordez, egoerak planteatzen ditu, gero horietatik ikasleek bere ikasteko. Horretan datza hezitzailearen lana.

Era berean, irakasleek gure metodologia eta ekintzak ikusten dituzte, eta hori ere esanguratsua da haientzat.

Zer-nolako harremana eta lankidetzaz duzue?

Irakasleen parte-hartzea eta inplikazioa oinarritzkoa da barnetegian. Oso gogorra da 24 orduz ikasleekin egotea, eta, batzuetan, lasai buelta bat ematera joaten uzten diegu; baina, era berean, beti gainean edo adi egotea eskatzen diegu. Goizero elkartzen gara irakasleekin, eguneko programazioaren nondik norakoak azaltzeko eta egiten duguna zergatik eta zertarako egiten dugun esplikatzeko. Arazoren bat ikusten badugu, irakasleekin partekatzen dugu, eta, taldearen arabera, gure ekintzak egokitzen ditugu. Esate baterako, taldean giro onik ez dagoela ikusten badugu, talde-kohe-sioa bultzatzeko ekintzak proposatzen dizkiegu. Euskaraz gutxi hitz egiten

baldin badute, gehiago mintzatzen gara gure hizkuntzari buruz. Ez gara beti gauza bera egitera mugatzen, beti gauza bera egiteak ez duelako ezer aportatzen. Ni justu kontrakoa egitearen aldekoa naiz: aldatu, aldatu eta aldatu. Egiten duguna oso ondo baldin badago, ongi, egindakoa jaso eta ez geratu mendi tontorrean, jaitsi eta goazen beste bide bat probatzera eta beste mendi bat igotzera. Hori da heziketa eta ni horregatik aritu naiz hainbeste urte lan honetan, eskolan ito egingo nintzen.

Egonaldiak gauza asko lantzeko egin daitezke, eta modu askotara. Zertan ari garen azaltzen diegu, ikasleei buruz hitz eginez, ikusten duguna aditzera emanez... Irakasleak konturatzen dira lanketa bat dagoela hor, ez dugula edozer gauza edozein modutan egiten. Eta hori igartzen da, idatzita uzten dute balorazioetan.

Zuen lan egiteko modua liburu batean azaldu duzue: *Euskal Giroitze Barne-tegiak: oinarri, jolas eta teknika hezitzaileak. Zer asmorekin egin duzue?*

Irakasle askok esan izan digute eskoletara joateko barnetegian egiten duguna egitera, bai ikasleekin eta baita beraiekin ere. *Hik Hasiren* Udako Topaketetan ere izan gara, eta orain, liburua urrats berri bat da bide horretan: gure metodologia azaltzeko eta zabaltzeko, erakusteko eta eskuragarri jartzeko, barnetegietan erabiltzeaz gain eskoletan ere erabil daitekeelako. Gure metodologiak eta teknikek berdin balio dute eskoletarako eta udalekuetarako ere.

Ez dugu dena guk egin, liburuan diren gauza asko beste pertsona batzuen bildumak dira, atal nagusia Iñaki Artolarena da.

Lan egiteko eredu hori eskolan aplikatzeko modukoa ikusten duzue?

Gure dinamikak egin daitezke eskolan, noski. Edukiak eman behar dira, ados, baina tartekatuta daitezke bestelako dinamikak. Kontua da batzuk beldur direla beren ikasleak gainera etorriko ote zaizkien. Edo ez dute ikusten euren burua guk hemen egiten duguna egiten edo ikasleekin hitz egiten, haien konfiantza lortzeko. Ez daude ohituta, ez irakasleak eta

ezta umeak ere, baina posible da.

35 urte hauetan, nola ikusi duzu euskararen ezagutzaren eta erabileraren bilakaera?

Bilakaera izugarria izan da. Ni ere natorren lekutik nator, Lasarte-Oriatik eta hango egoeratik, kontatu dizuedan bezala. Gaur egun, orain dela 35 urte ez bezala, badakit Lasarte-Orian edozein gaztek badakiela euskaraz, eta horrek poza ematen dit. Hori lehen ez zen posible. Orain badakit badakitela, agian ez dute egingo, baina badakit nik euskaraz egiten badiet ulertuko didatela. Hori urrats handia da. Hitz egitea edo ez beste kontu bat da, baina handia da badakiela jakitea.

Etorkinek ere txiki-txikitatik ikasten dute, eta denbora gutxian. Hor lana egiten da, eta emaitza hortxe dago. Kontua da orain lehen baino etorkin gehiago ditugula, eta zaildu egiten du horrek egoera. Lehen ere baziren, baina ez hainbeste. Zenbait eskolatatik barnetegira etortzen direnean, hiru afrikar, bi musulman eta beste bi hispano jatorriko egon daitezke talde batean. Elementu horiekin ari gara lanean orain hezkuntzan, eta gauza asko egin daitezke haiekin.

Lehen, irakasleek ere ez zekiten euskaraz. Orain, lehen ez zeuden baliabideak daudela ikusten dut, eta beste ingurune bat, gauza gehiago kultura arloan: irratia, Internet, euskarazko telebista... Lehen, ez zegoen halako laguntzarik.

Nik era positiboan pentsatzen dut: gero eta gehiagok daki euskaraz, eta 30 urte barru, gehiagok. Datozen belaunaldi berriak, gaurko ume eta gazte horiek, guraso izango dira, eta ulertuko dute euskara. Ezin dute esan jada ez dakitenik, jakin jakingo baitute. Beste koska bat erabilerarena da eta izango da.

Urte askotako ikuspegia duzu, eta aurrera begira jarrita, hamar urtera begira jarrita, zein izan daitezke erabileraren areagotzeko gakoak?

Hainbeste borroka egin dugu... Hizkuntzaren presentzia bermatu behar da, eta modu goxoan egin beharko da.

Elementuetako batzuk eskolatik kanpo daude, gizartean, etxean... Eta eskolan, beste bide batzuk aurkitu

beharko dira. Garrantzitsua iruditzen zait, adibidez, eskolatik kanpo, eta baita norberaren herritik kanpo ere, beste mundu bat badagoela erakustea. Batzuk Segurara etorri, eta konturatzen dira euskara dela hemengo herritarren eguneroko bizitzako hizkuntza. Hori pentsaezina da gure ikasle askoren herrian. Hemen herrira joaten gara barnetegiko umeekin, herriko jendeari euskaraz hitz egiten entzuteko, eta harrিতuta geratzen dira, ez dutelako hori ezagutzen.

Erreferentzia horiek erakustea komeni da, haien etxean, haien herrian eta haien kulturaren ez dutelako halakorik. Ez dute euskarazko erreferentziarik, ez dute batere giro euskaldunik gelan, herriko ume euskaldunak ikastolan edo beste eskola batean daude, eta urrun geratzen zaie erreferentzia hori.

Horrez gain, ikasleek hitz egiteko foro gehiago ireki beharko liriateke eskolan, beste metodologia batzuk erabiliz. Edukia bai, baina ikasleek hitz egin behar dute, eta, horretarako, esparruak eman behar zaizkie. Horrek ekarriko du gehiago erabiltzea.

Eskolatik kanpo ere hor gabilta, hor daukagu Euskaraldia. Motibazioari eusteko ekimenekin jarraitu behar dugu, euskarazko esparruak eskaini eta... konpromisoa. Hori pertsonala da, baina hori ere behar da. Eta ea nola kudeatzen dugun hori.

Kezkatuta zaude motibazioarekin?

Askotan ez diogu garrantzirik ematen, eta badu, handia. Zeren bestela, euskaraz ari garelakoan, erdaraz aritzen gara. Ez dugu hizkuntza era kontzientean erabiltzen. Esate baterako, gaur egun irakasle berri guztiek badakite euskaraz, lehen ez bezala. Kontua da irakasle berri askok ez dutela guk lehen genuen kontzientzia hura, eta, agian, erdaraz egiten dute eskolan euren artean. Hori ezin da onartu. Nahi duzuna egin kanpoan, baina zure lanpostuan ez. Hor badugu zeregina. Nik hori puntuatu edo baloratu egingo nuke: lehendabizi kontzientzia, eta gero, titulua. Irakasle lanposturako titulua behar da, baina, lanpostu horretan, hizkuntza maitatu egin behar da, ez da nomina irabazteko lana soilik. Kontzientzia behar da.

EKARPENAK 1

HEZKUNTZA EKOSOZIALA

Pandemia, krisi ekosoziala eta hezkuntza

Eskolara itzuli da gaur goizean Lur. Bi hilabete baino gehiago zeramatzan ezagutzaren, arauen, lagunen, irakasleen, adiskidetasunaren, maitasunen eta abarren eguneroko leku hori zapaldu gabe. Itzulera, emozioz betetako lurralde batera. Baina, oraingoan, beste era bateko inpresioak ditu. Orain, atera iristen da, eta bere txandaren zain egon behar du, araututako distantzia zainduz, pozik eta adi, bere lagunek jantzita duten maskararen look berriari so. Begiradak eta begi-keinu konplizeak bilatzen ditu, ahoa estalita duenetik horiek antzematen ikasten ari baita.



Maitane ARRI, Marije ETXEBERRIA eta JoseManu GUTIERREZ

Euskal Gune Ekosozialistako kideak

Urduri samar dago, ez baitaki hurrengo egunetan gauzak nola joango diren eta zer eskatuko zaien. Badirudi urrun geratu direla besarkadak, eskutadak, belarrira esandako konfidentziak, poza, haserrea, keinu baten bidez adierazitako konplizitatea. Askoz urrunago daude, berriz, Greta Thunbergen deiarekin bat egin eta, ilusioz beteta, klima-aldaketaren aurkako politiken geldotasunari aurre egiteko kanpaina dibertigarri hura egin zuten egunak. Aurreko beste bizitza bateko oroitzapen bat dirudi. Bien bitartean, itxialdia. Etxean giltzapean. Badira familian bizitzera, ohitura berri batzuetara eta ordenagailuarekin

lan egitera egokitu direnak. Badira etxean familia-jazarpena jasan dutenak, etxeko lanak egiteko baliabide digitalik ez zutenak, ikasteko laguntza zutenak eta laguntzarik ez zutenak, edo, familia-nukleoko beste pertsona batzuk ere telelanean ari zirelako, baliabideak partekatu behar izan dituztenak.

Emozio berriak sentitzen ditu Lurrek, eta zaharrak gogoratzen ditu. Eta horien erdian? Beldurra, tristura, gabezia, motibaziorik eza, larritasuna, antsietatea, atsekabea –batez ere urtebetetze-eguna familiarekin eta logelan igaro behar izan duelako, egoera berri horretan lagunen zorionmezuen eta bideo andanaren zain,

urduri- eta dolua, ia azaldu ezin duen nahaste batean. Lurren amonak 32 egun eman zituen ZIUn hil aurretik, eta ezin izan ziren harekin egon, eta ezin izan zuten ikusi ere.

Mundua, Lurrentzat gutxi gorabehera segurua zena (bere mugak zituena, jarraitu beharreko arauak, zaintzak...), egun batetik bestera erori, eta ziurgabetasunean murgildu zen. Zer gertatu da? Zergatik? Zergatik guri? Zer gertatuko da? Nola egongo da amona? Zenbat iraungo du honek? Nolako izango da aurreko bizitzara itzultzea? Nola sentitzen naiz? Nola sentitzen dira nire lagunak?

Lurrek egoera hori bizi izan eta jasan du. Eta ikastetxera joatera behar izan duen hezkuntza-sistemak etxean babestea eta bere autonomia bat-batean handitzea inposatu zion, erronka berriei aurre egiteko. Eta zer eskaini dio hezkuntza-sistemak? Edukiak (ezin konta ahala) etxetik lantzea, irakasleen eta etxeko laguntzarekin, irakasleak shock-egoeran egon arren eta nahiz eta zenbaitetan trebetasun digital mugatuak izan.

Hezkuntzaren norabidea

Hezkuntza al da hori? Ez. Urrutiko irakaskuntza, teleirakaskuntza, irakaskuntza digitala edo antzeko zerbait izan daiteke, baina ez hezkuntza. Emozioak ezinbestekoak dira hezkuntzan, ikaskuntzan, eta, egoera honetan, emozio negatiboak nagusitu dira. Zein hezkuntza-administrazioak jarri du arreta emozioen eta sentimenduen zaintzan eta kudeaketan, hau da, gure ikasleek gehien behar zuten horretan, ikasgai-zerrenda kosta ahala kosta amaitzen tematu beharrean? Gainera, non geratu dira lankidetzaproiektuak, ikaskuntza-komunitateak eta lantalde inklusiboak, besteak beste? Eta beste hainbat gauza.

Izan ere, hezkuntzaren helburuetako bat, indarrean dagoen legearen arabera, “hezkuntza gure gizartearen eta ekonomiaren erdigunean kokatuko duten jokabide-eredu berriak sartzea” da; “gero eta globalagoa den eta langileen eta enpresarien preskakuntzari dagokionez zorrotzagoa den egungo ekonomian (...), enplegarritasunean eta lehiakortasunean



eragiten du ezinbestean”. Eta hor dago gakoa. Hezkuntza-sistemak, gizarte-zerbitzu gisa, instituzio segurua, inklusiboa, bidezkoa eta etikoa izan beharko luke. Alabaina, oso urrun dago horretatik; haren helburua merkatu-ekonomiaren eta enpresen lehiakortasunaren premien zerbitzura jartzea da, pertsonen eta bizi garen komunitatearen premiak alde batera utzita.

Beraz, hurrengo urteetan, sistema-ren hezkuntzan murgilduta egongo da Lur; alegia, balioak, ezagutzak, kezak, jarrerak edo errealitatearen irakurketak ekoizpen- eta kontsumo-sistemaren mende jartzen dituen hezkuntzan. Eta horren helburua hau da: Lurrek ekonomia hegemonikoaren zerbitzura dauden “jokabide-eredu berriak” bereganatzea.

Hezkuntza-trantsizio ekosozialaren aldarria eta beharra

Osasun-krisi tragiko hau gure planetako izaki bizidun gehienek pairatzen duten eta Antropozenora ekarri gaituen krisi ekosozial handiaren zati da; larrialdi sistemiko bat da. Ekonomiak eragindako krisi ekologikoa eta soziala da, erreferentziako hezkuntza-legea goraiatu eta indartu nahi duena. Krisi global hori gaudituko badugu, ezinbestekoa izango da beharrezkoak diren trantsi-

zio sozialak eta ekologikoak egitea, gizarte zuzenagoak, bidezkoagoak, biosferaren zikloetara egokitua-goak eta etorkizuneko gertaeretik erresilienteagoak lortzeko. Eta hor, hezkuntza da gakoa berriz ere, beharrezko hezkuntza-trantsizioa, ekohe-

Zein hezkuntza-administrazioak jarri du arreta emozioen eta sentimenduen zaintzan eta kudeaketan, hau da, gure ikasleek gehien behar zuten horretan, ikasgai-zerrenda kosta ahala kosta amaitzen tematu beharrean? Non geratu dira lankidetzaproiektuak, ikaskuntza-komunitateak eta lantalde inklusioak, besteak beste?

EKARPENAK 1: HEZKUNTZA EKOSOZIALA



rritar ahaldunduak heziko dituen eta etorkizuneko erronkei aurre egiteko erresilientzia garatuko duena.

Aipatutako helburuak ez bezala, hezkuntza-trantsizioak bizitza jarri

Hezkuntza-trantsizio ekosozialak barnean hartzen ditu gizarteratzea eta ahalduntzea, alternatibien proposamena eta ekosozialki eraldatzaileak diren ekintzen garapena. Eta horretarako, behar-beharrezkoa da hezkuntza-sisteman gaitasun berri bat —zaharrena izan beharko lukeena— txertatzea: iraunkortasunerako gaitasun ekosoziala.

behar du hezkuntzaren erdigunean, jardueraren eta eskola-curriculumaren muinean. Eta bizitza hori hauskorra eta mugatua da, pertsonen ekomendekotasunari eta interdependenziari dagokienez. Printzipio horiek hezkuntza ekosozial berri baten zutabeak izan behar dute. Horretan oinarrituta, ikasleen garapen integrala gidatu behar du hezkuntza ekosozialak, eta tokiko arazoei zein arazo globalei eta curriculumean ezkutuan dauden subjektuei eta kolektiboek erantzun behar die (klima-aldaketa, biodibertsitatearen galera —pandemiaren faktoreetako bat—, zaintza-krisiak, beste ekonomia posible batzuk, osasuna, energia-trantsizioa eta premia espezifikoak dituzten pertsonak, emakumeak, migratzaileak, etxegabetuak, esplotatuak...). Hori guztia, oinarri ekosozial hauetan oinarrituta: gizarte-ekitatean, ondasun komunen erabileraren iraunkortasunean eta demokrazia parte-hartzailan.

Hezkuntza-trantsizio ekosozialak barnean hartzen ditu gizarteratzea eta ahalduntzea, alternatibien proposamena eta ekosozialki eraldatzaileak diren ekintzen garapena. Eta horretarako, behar-beharrezkoa da hezkuntza-sisteman gaitasun berri bat —zaharrena izan beharko lukeena— txertatzea: iraunkortasunerako gaitasun ekosoziala. Ingurumen-

-krisia ulertzeko eta adierazteko eta etorkizuneko trantsizio saihestezinetan benetan parte hartzeko modu bat erakusten duten ahalmenen, trebetasunen eta jarreraren multzoa, hain zuzen. Iraunkortasunerako gaitasun ekosozialak hainbat ardatz ditu: pertsona bakoitzak bere burua ezagutzea eta ulertzea, eta bere burura, bere taldera eta bizi den mundura behar bezala egokitzea; gertakari berriei aurre egiteko beharrezkoak diren natura- eta gizarte-zientziei buruzko ezagutzak eskuratzea; gure planetako bizitza, mugak eta fluxu energetiko, material eta biofisikoak nola garatzen diren jakitea; ingurumen-krisi sakonaz, krisi horrek gizartean dituen eraginez eta aldaketa sistemiko sakonen saihestezintasunaz jabetzea; guztiz demokratikoa, parte-hartzailea, solidarioa, inklusiboa eta askotarikoa den gizarte bat garatzen laguntzea; arazoak kritikoki aztertzea, alternatibak bilatzea eta aldaketarako gizarte-eragile aktiboa izateko irtenbide irudimentsuak proposatzea.

Horrela prestatu balute, Lurrek konfinamendua eta bere harremantara eta eskolara itzultzea baldintza hobeetan bizi ahal izango zituen; eragile aktiboa izango zen bere komunitatean. Lurrengatik, beharrezko trantsizio sozialagatik eta ekologiagatik: jasangarritasuneranzko hezkuntza ekosoziala!

zientzia
azoka
elhuyar da

bizi
ikerketa!

GAZTEENTZAKO ZIENTZIA ETA TEKNOKO BIDEO-LEHIAKETA

12-18 URTE

Irabazi FUTUROSCOPE parkerako 2 eguneko bidaia!



PARTE HARTZEKO BALDINTZAK ETA INFORMAZIOA: www.zientzia-azoka.elhuyar.eus

* Lanak aurkezteko epea: 2020ko urria

BABESLEAK



KOLABORATZAILEAK



EKARPENAK 2

OSPAKIZUNAK ETA KULTURA-ONDAREA

Atzo Domu Santu eta Arimen Eguna; gaur, Gau Beltza

Orain dela urte batzuk, Halloween iritsi zitzaigun Euskal Herrira, eta, urtez urte, goraka doan ospakizuna da. Halloweeneko kalabaza gero eta presenteago dago merkataritza-guneetan, ostalaritzan (taberna, jatetxe, ostatu...), mozorrodendetan, telebistako iragarkietan eta baita litxarrera-paketeetan ere, sorgin eta bestelako irudiekin (Araolaza, 2009). Egun horrek gure kultura-ondareari lotutako Arimen Gauarekin edo Gau Beltzarekin egiten du topo. Jai horrek gure artean izan duen presentzia aztertzeke eta garai berrietara egokitzeko zertzelada batzuk eskaintzen dira artikulu honetan, bai eskola-eremurako eta baita eskolatik kanpoko eremurako ere.



**OIHANA ITURRINO
BUSTINDUI**
Lehen Hezkuntza
graduatu

Gure umeak horretaz konturatu dira, eta festa hori bereganatzen ere hasiak direla esan daiteke (Ozaita & Altuna, 2017). Nik Ondarroako umetxoak ikusi izan ditut kaleetan barrena, mozorroturik, eta “trunk or treat” esaldi famatua ahoan. Zeharo desberdina da, ordea, alboko herrian, Mutrikun, gertatzen dena. Badira hogeiren bat urte *Gaba Beltza* ospatzen dela. Garai batean, hango zaharrek kontaktzen du-

tenez, usadioa zen kalabazak hustea Arimen Egunez, eta begi-zuloak eta ahoa egin, kandela bat barruan sartu eta kalez kale jendea beldurtzen ibiltzea. Arrizabalagak eta Jangek/n Me elkarteko kideek, hori oinarri hartuta, hasiera eman zioten *Gaba Beltza* izenez ezaguna den ospakizunari (Irazustabarrena, 2001).

Hala ere, Mutrikuko berririk ez zuten Ondarroako umetxoek, eta ezagunago zitzaien AEBko filmetako “trunk or treat”. Ondo ez gabiltzan seinaleztat hartuta, Gau Beltzaren ingurukoak aztertu eta umeentzako proposamen bat egitea pentsatu nuen. Informazio bila hasi orduko konturatu nintzen Gau Beltza baino zabalagoa dela kontua.

Kalabazak hustu, bide bazterretan jarri eta etxez etxe ibiltzeko ohituraren testigantzak jasota daude Mutrikun, Euskal Herri osoan, estatuko zenbait lekutan eta European ere. Ez da irlandarrek AEBra eraman eta handik bueltan kontsumismoaren ikur bilakaturik aurkezten zaigun ospakizun soil bat, askok hala uste badute ere. Gure begien aurrean birsortzen, eraldatzen eta berpizten ari den tradizio bat da. Horregatik, gaur egungo prozesu kulturalak ezagutzeke, laguntza handia eskain dezake lehengoak nola gertatu ziren jakiteak (Araolaza, 2012).

Bistan dago ohitura horrek eten bat izan duela belaunaldien artean, Halloween gure etxe atarira etorri

arte ahaztuta izan duguna. Orain, noraezean gabiltza, ez baitakigu argi gure ohitura zen edo estatubatuarrek inposatutakoa den, onartu ala baztertu egin behar dugun, geure egin ala arbuia. Helduok eztabaida horretan gabiltzan bitartean, gure umeentzat erreferente eta ospatzeko arrazoi bilakatzen ari den jaia da (Ozaita & Altuna, 2017).

Kultura-ondarea transmititzearen garrantzia

Europa osoan, neguko jaien zikloari hasiera ematen dion jai bat izan da, hilen eguna ospatzeko egiten dena. Garai bateko gizarteetan, Ama Lurraren zikloei begira bizi ziren, eta, urte-sasoen inguruko sentsibilitatearen hipotesiaren arabera (Del Campo, 2006), urri amaieran edo azaroan hasten zen neguko sasoa iruditegi herrikoian, iparraldeko herrietan, Euskal Herrian barne. Uzta eskasiak eta egun hotz eta ilunek arriskuari eta beldurrari loturiko folklore berezia sortu zuten garai horretatik Garizumara arteko ospakizunetan, eta ezau-garri komunak atxiki zitzaizkien jai horiei: mozorroa eta eskea (Araolaza, 2017).

Ohitura hori, neguko jaien zikloko beste ospakizunen moduan, gure kultura-ondare da. Eten bat izan duen arren, belaunaldiz belaunaldiko oinordekotza da, oraingoaren eta lehengoaren arteko lotura; gure nagusiek oinordetzan transmititu nahi izan duten ohitura da, eta identitate-elementuak gordetzen ditu (kolektiboak, sozialak, kulturalak...).

Kultura-ondarearen etengabeko eraikitzean, etxea izan da transmisiorako gunea historikoki, eta eskolaren esku utzi dute ardura hori gaur egungo gizarte-aldaketek neurri handi batean (globalizazioa, teknologiak, mugikortasun handia...). Beraz, baliabideak eskaini behar ditu eskolak, hezkuntza-komunitatearekin batera, gure kultura-ondarea ezagutzeko, maitatzeko eta bizitzeko, gertuko kultura-ondarea abiapuntu hartuta (Ramirez de Okariz, 2014).

Eskolak funtzio eta ardura garrantzitsua dauka afera horretan: *belau-naldiz belaunaldiko transmisioaren etenak, globalizazio azkarrek eta*



herritarren mugikortasunak nor bere herria garai batean baino gutxiago ezagutzea ekarri du. [...] Une honetan, gehiago dakigu ia-ia kanpokoaz bertokoaz baino, mass-medienez. Ikasleak gertuko ezagutzen ez badu, ezingo du ulertu, ez sentsibilizatu, ez maitatu. Ezagutzatik maitatzera doan kate hori, gaur egun, eskolari dagokio, neurri handi batean (Ramirez de Okariz, 2014: 1).

Heziberrik (2020:17) ere honela dio: *Globalizazioaren ondorioz etor litekeen homogeneizazioari aurre egingo badiogu, beharrezkoa da euskal kulturaren garapena sendotzea, gizarte honetako aktore bakoitzak aukera izan dezan gizartearen ezagutza teoriko/emozional/tekniko batera heltzeko.*


Gertuko ezagutzeko, geurea denaz jabetzeko eta hori guztia zaintzeko, tokian tokiko testuinguruari loturiko sentsibilizazio-diseinu bat planteatzen du Fontalek (2007).

Hala ere, eskolak ez du bidea berak bakarrik egin behar; gertuko kultura-ondarea transmititu eta eraiki nahian ari diren beste erakundeekin elkar-

lanean aritu behar du, nahitaez. Familiak, udalak, museoek, musika-eskolek, dantza-taldeek... oso funtzio garrantzitsua dute kultura-ondarearen transmisioan. Guztien arteko komunikazioak eta elkarrekintzak herrien ondarearen kontserbazioan eragingo dute, eta, horrela, hezkuntzaren zerbitzura egongo den benetako erreminta boteretsu bihurtuko dira (Ramirez de Okariz, 2014).

Beraz, komunikazioa ez da ikasleen eta irakasleen artekoa soilik. Testuinguru horretan, eragin handia izango du ondare-hezkuntzan hezkuntza ez-formalak. Izan ere, hezkuntza bera esperientzien metaketa bat da, eta ezinbestekoa da truke komunitarioa (Ramirez de Okariz, 2015).

Ezagutu, ulertu, baloratu eta jardun pedagogia-dimentsioak erreferenteak dira aplikatu nahi den ondare-hezkuntzan, bai edukiak sistematizatzeko eta bai estrategiak eraikitzeko (Fontal, 2003). Ezagutzen, egiten, izaten eta elkarrekin bizitzen ikasteko gaitasunean oinarritzen dira horiek. Eta baita ikasketa dialogikoan eta elkarrekintzan eta komunikazioan ere,



Irudia: prozeduren erlazioa sentsibilizazio-diseinu batean (Fontal, 2007).

EKARPENAK 1: OSPAKIZUNAK ETA KULTURA-ONDAREA

Arimen Eguna edo Gau Beltza lantzeko hezkuntza-proposamenak aurrera eramateko unerik egokiena urriaren azken asteak dira, sasoi horretako testuingurua eta giroa aproposak baitira, bai eskolan eta bai kalean.

hezkuntza-eragile direnen eta ez direnen arteko eta ingurune soziokultural bat osatzen duten pertsonen arteko elkarrekintzan eta komunikazioan, zehazki (Ramirez de Okariz, 2015).

Arimen eguna dela-eta, zer landu, eta nola, eskolan

Arimen Egunak edo Gau Beltzak baliabide anitz eskaintzen dizkigu eskolan hainbat gai lantzeko; besteak beste, aldaketa sozialen garapen historikoa, ahozkotatasuna eta ahozko literatura nahiz heriotzaren pedagogia, heriotzaren gaiarekiko tabuak gaindituta.

Heziberri planean (2020), komunikaziorako konpetentzia guztiz garatzeko hizkuntza-trebetasunak lantzeak duen garrantzia azpimarratzen da. Zentzu horretan, komunikaziorako konpetentzia garatzeko, ezinbestekoa da ahozko komunikazioko eduki hauek lantzea: hitz egitea, entzutea eta elkarrekin solasean jardutea. Azken finean, ikasleak hizkuntza erabiltzeko gaitasuna garatu behar du, askotariko testuinguruetan egoera bakoitzaren aurrean erantzuteko eta pertsonen arteko harremanak indartzeko. Hizkuntza-erabileraren bi alderdiak integratu behar direla aipatzen du Heziberrik: bai ulermena eta bai ekoizpena. Gure eskola-sistemak ahozko komunikazioarekin lotutako hizkuntza-trebetasunak ahaztu izan dituela ere aipatzen du Heziberrik. Eskolan, gehiago landu da idazketaren eremua, eta, horren

ondorioz, ahozkoari ez zaio behar besteko garrantzirik eman. Eskolan ez baditugu guk geuk sortzen euskarazko komunikazio-egoera horiek, landu gabe geldituko dira ahozko komunikazioarekin lotutako hizkuntza-trebetasunak.

Arimen Eguneako eske-errondetan edo neguko festetako beste eske batzuetan, eskeko esaerak eta kopla zaharrak azaltzen dira. Euskal Herriko txoko askotako esamolde eta koplatxo horiek, aldaerak aldaera, herritik sortuak dira, eta belaunaldiz belaunaldi heldu dira guganaino. Horiek baliatu daitezke ahozkotatasuna lantzeko.

Aipatu dugu Arimen Egunak balio duela heriotzaren pedagogia lantzeko ere. Nahiz eta gaur egungo gizartean tabu bilakatu, bizitzaren baldintza saihestezina da heriotza. Denok egin beharko diogu aurre unerik batean. Izan ere, izaki bizidun bat, jaiotzen den unetik, hiltzeko arriskuan dago. Beraz, heriotza bizitzari atxikita dago, nahiz eta horretaz pentsatzea zaila eta mingarria egin (Diaz, 2011:3, in Loizaga, 2017).

Loizagak (2017) dio, Herran eta Cortinari erreferentzia eginez, gizartean ez ezik hezkuntzan ere tabua dela heriotza: *“Izatez, heriotza betoa etengabe jasotzen duen gaia da, negatibotzat eta gustu txarrekotzat hartzen baita. Hortaz, heriotza eta, beraz, hildakoak baztertu eta ezkutatatu egiten dira, zentzu guztietan eta hezkuntzako ziklo guztietan.”*

Heriotza, unibertsala eta saihestezina izateaz gain, gai erakargarria da heldu zein umeentzat. Beraz, ez du zentzurik haurrei ezkutatzeko, leku guztietan baitago (Arnal in Olid, 2013:1)

Ikasgelarako esku-hartzea zehazterakoan, bi planteamendu bereizten ditu Izagirrek (2003): alde batetik, doluaren pedagogia, eta, bestetik, heriotzaren pedagogia.

Doluaren pedagogiak lehen sorospenetarako gida baten beharra du, gelan sor daitezkeen krisien aurrean orientatzen laguntzeko. Une larri batean zer urrats egin eta nola bideratu jakitea lasaigarria da lagundu nahi duen baina emozioek blokeatuta daukaten hezitzailearentzat. Garrantzitsua da taldean lan egitea eta gelako krisi egoerari aurre egiteko erantzukizuna taldeak izatea.

Ikasgelan heriotza lantzeko Izagirrek (2003) planteatutako beste bide bat heriotzaren pedagogia da. Tabua natural bihurtzea da xedea, krisien aurrean bitartekoak sortuz eta akatsak eta sinesmen faltsuak desmitifikatuz. Beraz, pedagogia hori lagungarria da ikasleek heriotza eta krisi-egoeran gertatzen dena ulertzeko eta zentzua emateko. Heriotzari buruzko mitoez, sinesmen faltsuez, doluaren faseez eta abarrez hitz egin daiteke, askotariko dinamikak eginez horretarako.

Arimen Eguna eta Halloween ospakizunak heriotzarekin lotuta daude zuzenean. Aurrerago azaldu bezala, Europako kultura askok, baita gureak



ere, hildakoei eskainitako eguna da. Beraz, aukera paregabea eskaintzen du eskolan heriotzari buruzko lanketa egiteko; heriotzaren pedagogia egiteko, hain zuzen.

Hezkuntzarako ekintza-proposamenak

Ondoren, eskolaren testuinguruan Arimen Eguna edo Gau Beltza lantzeko zenbait jarduera didaktiko aurkeztzen dira hainbat esparru eta testuingurutan erabilgarriak izateko helburuarekin. Halere, eskolara-ko baliabide gisa aurkeztu arren, baliagarria izan daiteke testuinguru ez-formaletarako ere. Proposamena Lehen Hezkuntzako zikloetan aurrera eramateko diseinatuta egon arren, beste adin batzuetara ere molda daiteke. Jarduera hauen bidez, kultura-ondare hau eskolako jai-zikloen barnean sartu nahi da, Arimen Egunak Euskal Herrian izan duen presentziaz jabetuko baitira ikasleak horrela. Bide batez, eta gaiak ematen dituen baliabideak erabilita, denbora historikoa, ahozkoatasuna eta heriotza ere lantzen dira.

Hezkuntza-komunitatearen zeregina garrantzitsua da jarduera hauetan, haurrak protagonista izan arren, ezinbestekoa baita helduen inplikazioa, eta, jarduera batzuetan, geletako mugak gaindituko baitira. Bestalde, jarduerak aurrera eramateko unerik egokiena urriaren azken astei dagokiena litzateke, sasoi horretako testuingurua eta giroa aproposak baitira bai eskolan eta bai kalean. Iluntzean ospatzen diren jaiak dira Arimen Eguna eta Halloween, jakina da hori, eta, beraz, ondoren adierazten diren jarduerak urriaren 31ren inguruko ospakizunen aurrekari izan nahi dute. Horretarako, garrantzitsua da haurren inguruan dauden helduen inplikazioa (hezkuntza-komunitatearena, alegia), eskola-esparruaren girotze-lanean eragina izango dutelako: Inplikazioa eskatzeaz gain, eskolan aurretiaz jorratuko diren gaien berri emango zaie. Jarduerak arazo-egoera erara planteatzen dira lan honetan, ikasteko eta irakaste-ko prozesuaren abiapuntutzat eta konpetentziak ebaluatzeko oinarritzat hartzeko asmoarekin.

ESKERAKO IBILBIDEA

Izenburua: “Eske-erronda eta ibilbidea”

Arloa: Gizarte Zientziak

Maila: maila guztietara molda daiteke.

Testuingurua: eskean ibiltzeko ohitura oso zabaldua dago Euskal Herrian, eta Domu Santuz ere horrelaxe egiten da Euskal Herriko txoko batzuetan. Nafarroan, esaterako, “Txindurri” deritzen eskeak egiten zituzten, zenbait esamolde edo koplaxo esanez.

Egoera: ibilbide bat prestatu behar dugu, Gau Beltz egunean herrian eske-erronda bat egiteko eta atea non jo jakiteko.

Xedea: Gau Beltzeko eske-errondarako ibilbidearen mapa egitea.

Helburua:

- Herriaren planoa egitea eta puntu jakin batzuk identifikatzea.
- Ikaslearen herria ezagutzea.
- Auzoko eta herriko biztanleria ezagutzea.

Jarduera: taldeka, eske-errondarako ibilbidearen planoa egitea.

Jarraibideak

Talde handian: egin beharrekoari buruzko azalpenak emango dira, eta egitekoak aurreikusiko dira.

Talde txikietan: ibilbidea aukeratu, eta mapan kokatuko dituzte eskera-ko aukeraturako lekuak.

Talde handian: egindako ibilbidea aurkeztuko du talde bakoitzak.

Denen artean, ibilbide gustukoena aukeratu dute, egun horretan, iluntzean, eskean ateratzeko.

LEKUKOTASUNEN BILKETA

Izenburua: “Kalabaza-jolasei buruzko testigantzen bilketa”

Arloa: Gizarte Zientziak, eta Euskal Hizkuntza eta Literatura

Maila: maila guztietara molda daiteke.

Testuingurua: jakina da Halloween ospakizunetan kalabaza eskuan hartuta goxoki eskean ibiltzen direla umeak. Ospakizunak European omen du jatorria: Irlandatik AEBra eramandako ohitura dela esaten da.

Egoera: gure aitona-amonek, umeak zirela, egiten al zuten antzeko ospakizunik?

Xedea: Euskal Herrian Arimen Egunez egiten ziren kalabaza-jolasen berri jasotzea, ahoz eta idatziz.

Helburua:

- Aitona-amonen haurtzaroko jolasei buruzko informazioa biltzea.
- Ahoz emandako informazioa idatziz egoki jasotzea.
- Euskal gizartea denboran zehar nola bilakatu den jakitea.
- Gure ondare historiko eta kulturala ezagutzea: ohiturak, tradizioak eta kultura-adierazpenak.

Jarduera: binaka, taldeko kide bakoitzaren etxean emandako informazioa bilduko dute, nahi izanez gero gailu digitalen bitartez grabaketak eginez. Grabaketa horien transkripzioak gelara ekarri, eta talde handian aurkeztuko dira.

Jarraibideak

Talde handian: egin beharrekoari buruzko azalpenak emango dira, eta egitekoak aurreikusiko dira.

Binaka: Informazio-iturriak aukeratu, eta informazioa biltzeari ekingo diote. Informazioa dutenean, bildutakoa idatziz jasoko dute.

Talde handian: egindako lana aurkeztuko du talde bakoitzak.

EKARPENAK 1: OSPAKIZUNAK ETA KULTURA-ONDAREA

KOPLATXO-ESAERA

Izenburua: “Txingila Mangila”

Arloa: Euskal Hizkuntza eta Literatura, eta Gizarte Zientziak

Maila: maila guztietarako jarduerak

Testuingurua: urriaren erdialdea da, eta Gau Beltzaren atarian umeak eskean irteten dira, goxokiak eskatuz.

Egoera: AEBn, umeak “trunk or treat” esanez ibiltzen dira eskean Halloween ospakizunetan. Zuek ezagutzen al duzue tankerako esamolde euskaldunik?

Xedea: gure kultura-ondarea ezagutzea eta hari buruzko informazioa zabaltzea.

Helburua:

- Arimen Eguneko eskeetarako euskarazko esamolde bat buruz ikasita eramatea eta, nahi izanez gero, erabiltzea.
- Ahozko hizkuntza eta ahozko literatura lantzea.
- Talde-lanean aritzea eta erabakiak hartzea.

Jarduera: prestaketa-lan honetarako, lehiaketa bat egitea proposatzen da.

Jarraibideak

Talde handian:

- Egoera azaldu, eta talde handian egitekoak aurreikusi.
- Epaimahaia nola osatuko den eta botoen banaketa nola egingo den adostu.
- Irakasleak Nafarroako herri txikietako “txinaurriek” erabiltzen dituzten esamoldeen ereduak emango ditu. Eredutzat hartu daitezke, edo, eredu horiek hartuta, berriak sortu. Herri guztiek ez dute zertan izan esamolde bera.

Talde txikietan:

- Gogokoen duten esamoldea aukeratu.
- Paperean idatzi eta kutxan sartu.

Talde handian:

- Aukeratutako esamoldeak jasoko ditu epaimahaiak, eta puntuak emango dizkio bakoitzari, 0tik 10era.
- Puntu gehien lortzen dituen esamoldeak irabaziko du, eta, hurrengo egunetan, buruz ikasiko dute.

KALABAZA HUSTUEN LEKUKOTASUNAK

Izenburua: “Aitona-amonon kalabaza-jolasak”

Arloa: Gizarte Zientziak, eta Euskal Hizkuntza eta Literatura

Maila: maila guztietara molda daiteke.

Testuingurua: gure aitona-amonek, garai batean, Halloween ospatzen zuten, baina ez zioten horrela deitzen; Arimen Eguna izenez ezagutzen zuten, eta kalabazekin jolasean aritzen ziren.

Egoera: zuen aitona-amonek ezagutu al zuten horrelakorik txikitan?

Xedea: gure aurreko bizimodua nolakoa zen ulertzea, gure aitona-amonon garaiko kalabaza-jolasetatik gaur egunera zer aldatu den ikustea, eta horri buruzko informazioa zabaltzea.

Helburua:

- Arimen Eguneko kalabaza-jolasen ohitura ezagutzea.
- Ahozko hizkuntza lantzea.
- Euskal Herriko kultura eta hizkuntza-adierazpenak ezagutzea.
- Euskal gizarteak denboran zehar izan duen bilakaera ezagutzea.
- Gure ondare historiko eta kulturala: ohiturak, tradizioak eta kultura-adierazpenak.

Jarduera: taldean edo banaka, aitona-amonon kalabaza-jolasen eta gaur egungo Halloween edo Gau Beltzaren (tokian tokikoa) arteko desberdintasunak identifikatzea eta bideo batean azaltzea.

Jarraibideak

Talde handian:

- Bideoa ikusi, eta ikasleen iruzkinak entzungo ditugu.
- Etxean horrelakorik inoiz entzun duten galdetuko diegu.
- Egin beharrekoari buruzko azalpenak emango dira, eta egitekoak aurreikusi.

Talde txikietan:

- Desberdintasunak jasotzeko taula bat egingo dute.
- Bideoa grabatzeko nola antolatuko diren pentsatuko dute.

Talde handian:

- Talde bakoitzak aurkezpena egingo du besteen aurrean.

HERIOTZA

Izenburua: “Gau Beltza: hildakoen eguna”

Arloa: Gizarte Zientziak, Euskal Hizkuntza eta Literatura, eta diziplinartekoa.

Maila: maila guztietara molda daiteke.

Testuingurua: munduko herri askotan ospatzen da egun hau (Halloween, Día de los Muertos...); Euskal Herrian, Arimen Eguna edo Domu Santu eguna deitu izan zaio, eta, gaur egun, Gau Beltza izenez ere ezagutzen da. Mamuak, zonbiak, kalabazak, eskeletoak, hilerrietara joateko eguna... hildakoak gogorarazten dizkiguten sinbo-
loak dira denak.

Egoera: nola gogoratzen genituen lehen eta nola gogoratzen ditugu orain hildakoak Euskal Herrian?

Xedea: ospakizuna aitzakia harturik, heriotzaren gaira hurbiltzea.

Helburua:

- Euskal Herrian heriotzaren inguruan dauden errituak eta sinesmenak ezagutu eta bistaratzea.
- Ahozko hizkuntza lantzea, heriotzari buruz berba eginez.
- Heriotzaren gaia naturaltasunez jorratzea.
- Euskal gizarteak denboran zehar izan duen bilakaera ezagutzea.
- Gure ondare historiko eta kulturala lantzea: ohiturak, tradizioak eta kultura-adierazpenak.
- Informazioa biltzeko, askotariko iturrien erabilera lantzea.

Jarduera: talde txikietan banatuta (4-5 lagunekoak), horma-irudiak egingo dituzte Euskal Herriko lehengo eta oraingo heriotza-erritu eta sinesmenen inguruan. Askotariko informazio-iturriak erabiliko dira: familiakoak, sareko informazioa eta liburuak, argazkiak...

Jarraibideak

Talde handian: elkarriketaren bidez, heriotzaren gaira hurbilduko gara ikasleekin. Egin beharrekoari buruzko azalpenak emango dira, eta egitekoak aurreikusiko dira.

Talde txikietan: Informazio-iturriak aukeratu, eta informazioa biltzeari ekingo diote. Informazioa bildu ondoren, horma-irudia egingo dute.

Talde handian: egindako lana aurkeztuko du talde bakoitzak, eta eskolako korridoreetan jarriko dira horma-irudiak.

KOMUNIKAZIOA

Izenburua: Gure jaiaren egitaraua

Arloa: Gizarte Zientziak, eta Euskal Hizkuntza eta Literatura

Maila: maila guztietara molda daiteke.

Testuingurua: ospakizun eta jaien egitarauen berri emateko eta jendearen artean zabaltzeko, era askotako kartelak zein bideoak erabiltzen dira. Erakargarriak izan ohi dira, jendeak jaiaren parte har dezan.

Egoera: Gau Beltz egunean egingo ditugun eskearen eta ondorengo afari-meriendaren berri emateko eta jendea animatzeko, kartel edo bideoak prestatu behar ditugu.

Xedea: Gau Beltzeko egitaraua egitea, jendea animatzeko.

Helburua:

- Ideiak sortu, hautatu eta adieraztea.
- Harremanak eta komunikazioa lantzea.
- Hizkuntza idatzia eta irudizko hizkuntzak erabiltzea eta irakurtzea.

Jarduera: Taldeka, kartelak eta bideo bat sortzea, jendea Gau Beltzeko ekintzetan parte hartzera animatuz.

Jarraibideak

Talde handian: egin beharrekoari buruzko azalpenak emango dira, eta egitekoak aurreikusiko dira.

Talde ertainetan (5-6 lagunekoak): eskolako edo kaleko hormetan jartzeko moduko kartel erakargarri bat nolako izango den erabakiko dute, eta lanerako behar dituzten materialak hautatuko dituzte. Bideoa grabatuko dutenen kasuan, gidoi bat prestatu eta zereginak banatuko dituzte, eta materiala prestatu eta bideoa grabatuko dute.

Talde handian: egindako lana nola aurkeztu eta informazioa nola zabaldu erabakiko dute.

GALDEIDAZU

NOLA KOKATU BEHAR DU BERE BURUA EUSKAL HEZKUNTZA KOMUNITATEAK IKASTURTE HONETAN?

Ziurgabetasun garaiak bizi ditugu, oro har, Euskal Herrian zein munduan. Badirudi hori izango dela mende honetako adierazgarri nagusienetakoa. 2008an krisi ekonomikoa, egun pandemia, auskalo zer etorriko den hurrena. Ez dakigu eta ez dakigunaren aurrean prestatzea ez da erraza.

Ezegonkortasun honi aurre egiteko gakoetako bat beraz, aditu askok diotenez, sistema erresilienteak erakitzea izango da, ezezaguna denari erantzuteko prest egongo direnak. Hezkuntzak ere hori bilatu beharko du. Eta ondorioz, datozkigun erronken aurrean nola kokatzen garen garrantzitsua izango da. COVID-19a dugu horren adibide.

Zentzu horretan, euskal hezkuntza komunitatearen erronka handia da ikasturte honetan. Aurreko ikasturteko azken hiruhilekoan urgentziaz, alarma gorrian eta bat-batean aurreikusitako ezineko errealitate bati (pandemiari) erantzun behar izan genion. Errealitate berri horri, eta baldintzak baldintza, ahal izan genuen modurik onenean erantzun genion. Ez dugu geure burua zigortu behar, ahal genuen bezain ondo egin genuen. Hala ere, horregatik ez genioke eginda-koaren eta egin gabekoaren inguruko azterketa zorrotz eta eraikitzailea egitearen aukerari muzin egin behar-



**LARRAITZ
MENDIZABAL**

Eskolako aholkularia



ko, izan ere, une honetan onartezina bailitzateke, arrisku berari orain hilabete batzuk erakutsitako bat-batekotasunez erantzutea. Ikasturte berria ez dugu bide onetik hasi, ordea.

Euskal hezkuntza komunitateak pandemia honen aurrean, euskal hezkuntzaren markoa definitzen duten elementuak babestuko dituen erantzun integrala, holistikoa, ezin du begi-bistatik kendu. Geure sistemaren berezitasunak, hau da, nazio gutxiagotu eta linguistikoki xehatutakoa izateak dakartzkigun ajeak ezin ditugu bazterrean utzi, eta beraz, pandemiari eman beharreko erantzunak segurtasun sanitarioa bermatzetik harata-gokoa izan behar du. Honek egingo gaitu erresilienteagoak.

Babestu behar dugun euskal hezkuntza markoaren oinarriko elementuak zein diren oso argi izan beharko genuke gutako bakoitzak eta guztiok; alegia, ikaslearen ongizatea helburu hartuko duen erronka honi arlo sanitario (ongizate fisiko, mental eta sozial gisa ulertuz), pedagogiko, linguistiko eta kulturaletik erantzun behar diogu, horrela, euskal ikasleen garapen pertsonal integrala bermatuz. Hau da, euskal hezkuntza ereduaren markoa definitu behar duten elementu nagusiak kontuan hartuta erantzun behar du.

Etxealdiak agerian utzi du, lehendik

jada batzuek adierazia zutena. Alegia, gure hezkuntza-eredua agortua dagoela, ez diela XXI. mendeko belaraldiei erantzuten ez pedagogikoki, ez formatiboki, ezta linguistikoki ere. Horrek, ezinbestean, hausnarketa sakon bati lehenbailehen ekitea eskatzen du, ditugun erronkei aurre egingo badiegu, egunerokotasunari erantzunez beti ere, hankak lurtean edukiz eta ikasleek dituzten beharrei tartea eginez. Oso garrantzitsua da hezkuntzako eragile guztiok argi izatea hurrengo aste edo hilabeteetan izan dezakegun edozein errealiteren aurrean lehen aipaturako elementu guztiak (ongizate fisiko eta emozionala bermatzea, azken urteetan emandako aurrerakuntza pedagogikoak bermatzen saiatzea, kulturalki zein linguistikoki gure herrian errotuak izango diren pertsona gaituak sortzea, subjektu kritikoak eta aktiboak sortzea, elkartasuna eta taldekidetzan jarduten dutenak...) kontuan hartuta jokatu beharko dugula.

Gure ikasleen eta komunitatearen osasuna bermatu behar dugu, noski! Baita garapen pertsonala eta sozializazioa, gaitasun linguistikoa, zein prestakuntza, hala nola, ikuspegi kritikoa eta partaidetza kolektiboa.

Ikasleen eta hezkuntza komunitatean parte hartzen dugun guztion egoera emozionala begiratu beharreko ezinbesteko abiapuntua da.

Bestalde, ez dugu ahaztu behar

ikasle eta irakasleen gaitasun linguistikoa, euskararen ezagutzaren bermea ezinbestekoak direla, hurrek garapen pertsonal osoa izan dezaten; ikasle eta seme-alabei zor diegu eta legeak gainera, EAEn behintzat, horretara behartzen gaitu.

Hori guztia aurrera atera ahal izateko sistema ongi errotua izateaz gain, baliabidez zuzen eta nahikoa hornitua egon behar da. Ezinbestekoa da administrazioek zein beste eragile guztiak ikaslearen ongizatea bermatuko duen euskal hezkuntza euskaldun baten aldeko apustua egitea.

Markoaz hitz egiten dugunean argi izan beharko genuke berau definitzen duten bertako eragileak zein diren. Hauei dagokie elkarlanean gure errotrak zein diren zehaztea, modu parte-hartzailean eta ez entzule gisa bakarrik, pandemiaren garai luze honetan ez bezala.

Hori guztia bermatzeko ezinbestekoa da, hezkuntza sistema osoak eta bertako eragile bakoitzak zein funtzio dituen argi izatea, benetako zaintza egon dadin eta ikasleak begiratuak izan daitezten.

Eusko Jaurlaritzan/Nafarroako Gobernutik hasita, zein diren beraien funtzioak hezkuntza sailekiko, azken horiek nola zaintzen duten eskola eta eskola bakoitzak nola zaintzen duen irakasleria eta honek ikasleria.

Zaintza egokia izan dadin hezkuntza sistemak autoritatean kokatu behar

Geure sistemaren berezitasunak, hau da, nazio gutxiagotu eta linguistikoki xehatutakoa izateak dakarzkigun ajeak ezin ditugu bazterrean utzi, eta beraz, pandemiari eman beharreko erantzunak segurtasun sanitarioa bermatzetik haratagokoa izan behar du.

du (hazten ahalbidetzen duen autoritatea, eta ez haztea blokeatzen duen autoritarismoa), antolaketa zein arau argi eta adostuekin, parte hartzeko marko argiak eskainiko dituen, goitik behera, behetik gora zein ezker-eskuineko komunikazioa bermatuko duena, funtzio-banaketa argiekin eta guztia aurrera atera ahal izateko baliabide gehiago, bai material, zein pertsonalekin. Ezin dena da pentsatu egoera ez ohiko batean ohiko tresna eta baliabide hutsekin, edo gutxiagoekin, erantzun diezaiogunik.



Behar dugun markoa bermatzeko ezinbestekoa da hezkuntza sistema osoak eta bertako eragile bakoitzak zein funtzio dituen argi izatea, benetako zaintza egon dadin eta ikasleak begiratuak izan daitezten. Eusko Jaurlaritza/Nafarroako Gobernutik hasita, zein diren beraien funtzioak hezkuntza sailekiko, azken horiek nola zaintzen duten eskola eta eskola bakoitzak nola zaintzen duen irakasleria eta honek ikasleria.

Hori guztia ongi adosteak eta martxan jartzeak ekarriko du ikaslearen begiradan egotea, eta ez egun bezala kaosa kudeatzen ibiltzea.

Globalki bai, baina ikastetxez ikastetxe ere bai

Hezkuntza sistemak globalki egin behar duena ikastetxe mailan ere bermatu beharra dago ahal den heinean. Hemen ere antolaketa argi eta adostua behar dugu funtzio bana-keta argiekin; hausnarketa guneak sortu behar ditugu, hezkuntza eragile guztiei (zuzendaritza, irakasle, ikasle, guraso zein langile ez dozente) parte-hartze marko argiak eskainiz, etengabeko komunikazio egokia eta arina bermatuz, elkarlana indartuz... Horrela, COVID-19ak suposatzen duen mehatxuari aurre egin ahal izateko ezinbesteko sendotasuna eskuratuz eta haurrei beharrezkoa duten espazio seguru bat eskainiz, bai fisikoki zein emozionalki.

Horrelako egoera nahasietan ziurgabetasunari aurre egiteko beste norbaitek egin beharrezkoa zer den

argi eta garbi adieraztea eskertzen bada ere, lan hori ongi bideratzen ez bada mendekotasunaren arriskua dago, bat-batekotasunean eta hausnarketarik gabe arituz. Jokabide eta jarraibide adostuak eta bateratuak egon daitezten lagundu behar da, argi baitago autonomian oinarritutako autoeraketa, elkarlana eta ekintzailtza ezinbestekoak direla egoera konplexuei erantzuteko, eragile bakoitza baita proposatutakoa bere testuingurura egokitzeko gaitasuna duena. Horretan ere badugu zer ikasi.

Eta aipatutako guztia ezinbestekoa izanik ere ez da nahikoa. Horretaz gain, helburu pedagogikoak bermatzea ziurtatu beharra dugu. Eta horretarako, arau sanitarioak eta pedagogikoak uztartzeari ekin behar diogu (burbuilua bermatu ostean, horien baitan, orain arteko metodologiei eutsiz, adibidez). Ezin dugu bat bestearen mesedetan galdu. Azken urteetan egindako pedagogia eta metodologia hobekuntzak eta hausnarketak ez galitzea, baizik eta horietan sakontzea eta haratago joatea lortu behar dugu, eta ez atzera egitea. XXI. mendean izango dituzten erronkei modu pertsonal zein kolektiboan aurre egiteko gai izango diren pertsona osoak, kritikoak, aktiboak eta euskal identitatean errotoak garatzea bermatuko duten

pedagogia eta metodologiak jarraitzea ezinbestekoa da. Ikasle hauen bizi ikuskera ere gure esku baitago.

Krisi honetan, aipamen berezia merezi du ikasleen euskalduntze prozesuak bizi izan duen atzerakadak. COVID-19ari eman zaion erantzun nagusiki sanitarioak gai hau baztertzea ekarri du, salbuespenak salbuespen. Ezin dugu aiantzi gure herriko ikasleen ongizate emozionala garatzeko euskarak duen garrantzia. Euskararekin dira eskolako kide, parte, eta euskararekin dira ikasle oso. Baina ongizate emozionalaz aritzean hori ahaztu egiten dugu askotan. Euskararekin bermatzean ingurura irekitzeko aukera ematen diogu bai eta ingurua bereganatzeko ere, hartu eta eman egoki bat izateko aukera. Eta hemen hezkuntza sistemak, oro har, baina baita ikastetxe bakoitzak ere, badugu zer egin.

Herri bezala euskal hezkuntza sistemaren aldeko apustua egiteko garaia da, belaunaldi berrien eta XXI. mendeko erronkei erantzungo diena. Egungo eredia agortuta dago. COVID-19ak sorturiko krisia aukera gisa bizi beharko genuke agian, gure herriaren beharrei erantzungo dion euskal hezkuntza sistema euskalduna, mende honi egokitua eta erresilientea dena denon artean eraikitzeko.




ARGITALPENAK



ENE ITSUGIDARI, ENE KAPITAIN
Gonzalo Moure - Maria Giron

PAMIELA-KALANDRAKA

Aita baten eta haren alabaren arteko harremana da liburu honen oinarria. Aita itsua da eta alabak ere doi-doi ikusten du. Biek elkarren beharra dute eta eskolarako bidea zinezko abentura bihurtzen da haientzat, normalean ikusten ez diren hainbat eta hainbat gauza ikusteko gai baitira, euren urritasunetik haratago.



BAT, BULLYINGAREN AURKAKO TALDEA
Alex Hallatt

ELKAR

BAT taldeak bullyingari aurre egitea, bullyinga jasaten ari direnei laguntzea eta ondo pasatzea du helburu. Liburuan hori islatzen duen istorioa kontatzen du Zeelanda Berriko idazle eta ilustratzaileak. Liburuaren amaieran bullyingaren inguruko hainbat aholku ematen zaizkio irakurleari.



NOR NORK / NOR NORI NORK ADITZ KARTA
Ikas

IKAS


Ikas Euskal Pedagogia Zerbitzuak euskara lantzeko eta ikasteko baliabide berri bat kaleratu du: aditz karta bat. 9 urtetik gorako gaztetxoek Nor-Nork eta Nor-Nori-Nork orainaldian eta iragan aldian lantzeko karta da. Modu ludikoan eta eta jolastian ikasteko aukera ematen du.



GURE BASOAK
Aranzadiko Botanika Saila

ARANZADI-BERRIA

Gipuzkoako basoak eta basoetako landareak ezagutzeko gida berri honetan, mendiko gidetan ohikoa ez den arren, landareei eta basoei bie garrantzi bera eman zaie, landareak ez baitira era isolatuan hazten, basoetan baizik. Landareak ezagutzeaz gain, basoari lekua ematen zaio liburuan eta horrek baso-paisaiak interpretatzen ikasteko aukera ematen du.



EZEZAGUNERAKO BIDAIA
Iñaki Petxarroman

BERRIA-ELKAR-JAKIN

Klima eta ekologia krisi betean, bidezidorrak zabaltzeko ahalegina egin du *Berriako* kazetariak. Gaiaren inguruko hamalau aditu elkarrizketatu ditu orain arte emandako aldaketei, erabakiei eta akatsei buruz, besteak beste, Yayo Herrero, Iñaki Antiguedad, Valerie Masson-Delmotte eta Unai Pascual. Aurrera begirako zenbait gako ere eskaintzen ditu.



HEZKUNTZAREN SOZIOLOGIA
Jose Inazio Imaz Bengoetxea

UEU

Hezkuntza izan al liteke askea eta naturala? Zer mundutan bizi gara, eta zein dira hezkuntzaren erronkak mundu honetan? Nolako curriculum behar dugu? Zein da hezitzaile profesionalen rola gaur egun? Galdera horiei eta beste hainbati erantzuten saiatzen da egilea Soziologiak hezkuntzaren azterketa zientifikoari eginiko ekarpen nagusiak jasoz.

PROPOSAMENA

‘Hezkuntza-errealitate berrietara jauzi’ liburuxka

Gizarteaz eta hezkuntzaz hausnartutakoa irakurgai

Etorkizuna margotzen hasita, kolore askotako pintzelkadez margotu daiteke; eta norberaren hautuaren arabera grisagoa, ilunagoa edo argiagoa geratu daiteke. Hik Hasik hainbat arlotako 13 aditu eta aritu jarri zituen 2019ko uztailaren 1ean gizartearen eta hezkuntzaren etorkizunaz hausnartzen —eta urtebete geroago COVID-19aren pandemiaren ere bai—. Emaizta ‘Hezkuntza-errealitate berrietara jauzi’ liburuxka izan da.

Abiapuntua Hik Hasi Udako Topaketan 20. urteurrena izan zen. Ospakizun modura jardunaldi berezi bat egin zen eta bertan egungo eta etorkizuneko gizarteaz eta hezkuntzaz hausnartze-ko hitzaldi bat eta lau mahai-inguru egin ziren Donostian. Hezkuntza arlotik kanpo diharduten adituak eta arituak bildu ziren mahai-inguruetan eta bi galdera luzatu zitzaizkien:

- 1. 10-20 urte barru nolako gizarte irudikatzen duzu? Zein izango dira premia nagusiak? Zeri erantzun beharko zaio?**
- 2. Horretarako, zer-nolako hezkuntza behar da? Nola hezi behar ditugu haur eta gazteak?**

Urtebete geroago COVID-19aren pandemia betean, hirugarren galdera bat luzatu zitzairen:

- 3. Orain urtebeteko egindako gogoetari zer gehituko zenioke bizi dugun pandemia dela-eta?**

Emaizta liburuxka interesgarri eta mardul hau izan da. Gaurkotasuna

duten hausnarketak biltzen ditu, hezkuntzatik kanpo dabilzan aditu eta arituek hezkuntza, eskola, ikasleak, gurasoak, hezitzaileak eta gizarteak, oro har, nola ikusten dituzten kontatzen dute. Denok aberasteko moduko hitzak, jakintza eta ikuspegiak gurtzatzen diren ibilbide bat osatu da eta hemen jaso dira hausnarketa horien pasarte batzuk.



Liburuxkako idazleak jardunaldi egunean, ezkerretik eskuinera: Aritz Otxandiano, Ion Errea, Idurre Eskisabel, Jon Sarasua, Tamara Claveria, Heike Freire, Marga Iñiguez, Arcadi Oliveres eta Txusa Balbas. Falta dira Juan Jose Ibarretxe, Joseba Azkarraga Etxagibel, Maitane Arnoso Martinez eta David Fernandez.



Juan Jose Ibarretxe
Agirre Lehendakaria
Center-eko zuzendaria
eta Eusko Jaurlaritzako
lehendakari ohia

Gaur egungo mapamundian kokatze-ko, gure kultura gehitu behar dugu. “*The k is the key*” esaten dugu guk: kultura da gakoa. Transformazioak eta aldaketak ulertu ahal izateko, kulturak emango digu giltza. (...)

Mahai gainean daukagun galdera nagusia honako hau da: posible al dugu beste mundu bat eraikitzea? Dilema oso argia da: botereetatik jarraituko dugu eraikitzen, ala giza eskubideak, indibidualak nahiz kolektiboak, bermatuz eraikiko dugu mundu berri hori? Nik uste dut bigarren hori dela bidea. Eta badago soluziorik? Bai, Jose Saramagok esaten zuena: “*Se llama conciencia*”. Hori da bide bakarra.



Joseba Azkarraga Etxagibel
Soziologoa, Bilboko
Hezkuntza Fakultateko
irakaslea (EHU)

Irudikatu inurritegi bat. Hortxe lur-tontortxo, zelaiaren erdian. Hortxe ehunka inurri saiatu, atzera eta aurrera, lanari emanda elikagaiak biltegitratzen, nekagaitz, ongi lerrokatu, edozeinek bere idazmahaiari nahi lukeen ordenaren nozioarekin. Badator, baina, hanka biko nerabea jostalari, eta zartatu du inurritegia ostikada siku batekin. Hautsi da inurri-gizartea, akabo lan produktibo ongi antolatua. Pausoa erotu zaie inurriei, lehertu da lerro zuzena. Desordena eta kaosa. Kolapsoa, alegia. Giza inurritegiaren kasuan, ez da ostikada bakarra. Lau dira kolpe kolosalak: ekonomia eta finantza, energia, klima eta bioaniztasuna. Zartakoak dagoeneko gertatzen ari dira, ez da profetia bat, baina efektuak askoz nabarmenagoak izango dira etorkizun nahiko laburrean. Zer da COVID-19a? Antza, kolosoetako bat: bioaniztasuna masiboki galtzearen eta ekosistemak suntsitzearen ostikoa, bere gordinen. (...)

Historiako puntu honetan, dilema ez da hazkundera ala desazkundera,

baizik eta desazkundera ondo antolatua ala kaotikoa. Emantzipazioaren narratiba berriak zera eskatzen du: esaldi berean lotzea *gutxiagora* eta *hobera*.



Idurre Eskisabel
Kazetaria, Antropolo-
gian lizentziatua eta
EHUko irakaslea


Eta galderari buelta ematen badiot? Itaundu orde zuzena behar duen eskolako hezkuntza-sistemak gure haur eta gazteak gaurko errealitate eta joeretatik abiatuta irudikatu du dan etorkizun horretara egokitzeko, galdetzea nolako etorkizuna nahi du dan, eta, nolako heziketa behar duten gure haur eta gazteek hondamendia eragotzi eta bestelako etorkizun bat sortzeko. Hain zuzen ere, garaiotan galdera pertinentea horixe dela iruditzen zait, eta erantzuna, lerro nagusitan, argia: gutako bakoitzaren baitan, eta, horrenbestez, kolektibitatean, hain sakon errotutako subjektibitate neoliberalera eraldatzea, bestelako hezkuntza eraldatzea, bestelako hezkuntza eraldatzea. Gure desira eta bizi-bulkada intimoak eta geure buruon hautematea aldatu gabe nekez aldatuko dugu osterantzekorik.



Jon Sarasua
Hiru semearen aita,
idazlea eta
unibertsitateko irakaslea

Eskolari eskatu behar diot egiten duen hori ondo egitea. Eta gainerako dena gurasooi edo familia zabalagoari dagokigu, lagunei edo herrian ditugun bestelako herrigintzako eragileei. Asko azpimarratuko nuke gurasoen ardura-hartzea eta komunitatearen ardura-hartzea, eta eskolaren ardura partziala. (...)

Hezkuntzari buruz oharpen txiki batzuk egingo ditut: ez dira gauza bera informazioa, ezagutza eta jakinduria; eskubideez gain, arduraz hitz egin behar da serio; lanarekin kontaktu zuzenagoa behar dute gazteek; gazteen burua ireki behar dugu ideologietara, jakinduria-tradizioetara, zientzien



'Hezkuntza-errealitate berrietara jauzi'

Hik Hasiren 34. monografikoa

Parte-hartzaileak:

Juan Jose Ibarretxe, Idurre Eskisabel, Joseba Azkarraga Etxagibel, Maitane Arnoso Martinez, Txusa Balbas, Arcadi Oliveres, Marga Iñiguez, Jon Sarasua, Ion Errea, Aritz Otxandiano, Heike Freire, Tamara Claveria eta David Fernandez.

Eskuragarri

www.hikhasi.eus

ekarpen berrietara eta gutxiago ideologizatu behar dugu hezkuntza; eskola uniformeezia daukagu Euskal Herrian; berrikuntza kontzeptuaren orde hezkuntzan egokiagoa da hobekuntza, sen oneko kontzeptua eta jarrera den heinean; haurrak eta gurasoak matrikulatzen diren eskolak ikusi nahiko nituzke.



Heike Freire
Pedagogoa, pedagogia
berdeetan aditua eta
formatzailea

Naturarekin harremanetan egoteko, hezteko modua aldatu behar dugu, eta, horrekin batera, arkitekturak ere aldatu behar du, medikuntzak ere bai, ingeniariak ere bai... Hau da, gure kultura guztiak aldatu behar du, eta nik uste dut eskolek aukera itzela dutela eraldaketarako gune izateko, beste batzuekin batera, noski. Komunitatea sortzetik eta norbanakoaren errespetutik abiatuta, norbanakoaren beharrak asetzen dituen komunitate batetik abiatuta, gertuko ekonomiarantz joan gaitzeko, elikadura, sistema energetiko desberdinak eta abar garatuz. Eta, hori guztia egiteko, ez ditugu umeentzako eskolak eraiki behar, guztiontzako eskolak baizik. Eta naturak toki garrantzitsua betetzen du hor.

ATZEKO ATETIK



XANGORIN HIK HASITARRON ARTEAN

JOSU TXAPARTEGI IRAKASLE OHIA

Hik hasi aldizkariaren hasierak ziren. Joxe Mari Auzmendik hauxe komentatu zuen bilera batean: “Izen baten bila nabilek, proiektuaren euskarri izango den elkarteari estalki bat emateko”. Egun haietan, Agosti Xahoren *Bidaia Nafarroara euskaldunen oldartzearen denboran* (1830-1835) nobela historizatua irakurtzen ari nintzen. Lehen Karlistaldi garaian zabaldu zen Zumalakarregiren balentria hura, euskaldun talde baten laguntzarekin Etxarri Aranatz armaz hartu zueneko. Xahok bere irudimenean egiaztatu nahi izan zituen Zumalakarregiren eta karlisten askatasunaren aldeko borroka haiek. Iparraldetik Nafarroa Beherera doan alegiazko bidaia bat kontatzen du liburuan.

Denen gainetik, hitz batek erakarri zidan arreta: xangorin. Xaho berak

argitzen zuen hitzaren esanahia: “zango arin”. Horrela deitzen zitzaien, nonbait, garai hartako euskal kontrabandistei. Begiak zorrotz, belarriak erne eta zangoak arin, hara pertsonaia haien dohain beharrezkoenak. Gaua eta ekaitza, baita ere, lagun onak.

Zein hitz egokia, pentsatu nuen, jaio behar zuen aldizkariarentzat, euskal kulturari, euskarari eta euskal eskolari abiada bizkortzera zetorren proiektuarentzat. Gu ere kontrabandisten moduan ibiliak ginen mendetan, gure herriaren etorkizuna babestu nahian. Enbata eta ilunpe asko pasatutako herria ginen. Horrek zorrotzu dizkigu begi, belarri, oin eta arimaren gihar guztiak. Xangoarinak izango ginen, bada, Hik Hasitarrak. Oraingoan, ez kontrabandista moduan gauez eta iheska, egun argiz eta

aldizkari duin baten bitartez baizik. Kontrabandisten mendi-maldak, bidexkak eta ur-lasterrak haurrak, gurasoak eta irakasleak izango ziren guretzat. Guztion artean osatutako komunitate sendo bat lortu behar genuen.

Xangorin hitzak baditu bere baldintzak. Datorrena urrun samarretik asmatzen jakitea da bat. Atzean utzitako lanaren etengabeko errepasoa, bigarrena. Beste bat, ondoan zurekin doanarekiko konfiantza osoa. Eta laugarrena, erresistentzia handia, proiektu osoari bizitza luzea eskaintzeko, aldapa igoerak eta jaitsierak ongi kontrolatzeko gaitasuna.

Horrela izan zen hitz horren jaiotza gure artean. Joxe Marik enbidoa bota, nik heldu, eta aldizkariko lantaldeari nortasuna ematen dion ezaugarri gisa gelditu den terminoa.



BURDIN HARANA LEGAZPI - GIPUZKOA

MIRANDAOLAN EGOERA BERRIRA
EGOKITU GARA GUZTIENTZAT LEKU
SEGURUA ETA MAGIKOA IZATEN
JARRAITZEKO.



AZAROAN ETA ABENDUAN....
OLENTZERO IKAZKINA!
Astean zehar ikastetxeentzat eta
asteburuetan familientzat

BERRIZ ERE DISFRUTATZEKO UNEA DA!



MIRANDAOLAKO BURDINOLA

Euskal Burdinaren Museoan eta Burdinolan, Euskal Herrian burdinolek izan zuten garrantziaz jabetuko gara, garaiko teknologia aztertuz. Olagizon, meatzari eta ikazkinen bitartez, garai hartako lanbideak ezagutuko ditugu. Energia mota desberdinak bereiztuko ditugu eta jankin-min zientifikoa piztuko dugu.



AITONA-AMONEN ESKOLA

1950. hamarkadako gizartean murgilduko gara garaiko eskolara gerturatuz eta gaurko eskolarekin dituen ezberdintasunez jabetuz. Ikasleengan jakin-mina piztu eta belaunaldien arteko harremana sortzea eta genero-berdintasunaren alde lan egitea izango da gure helburua.



GUNE BERRIA!!

FABRIKA

XVIII.mendetik XX.mendera bitarteko iraultza industrialia ezagutuko dugu, garaiko aldaketa handiak aztertuz: makinak, ekoizte-sistema berriak, gizartea, eta abar. Euskal Herriko industrializazioa eta orduko lan espezializazioa ikusiko ditugu besteak beste

ikašketa-maila bakoitzari egokitutako bisitak



Mirandaolako parkean, merenderoa, frontoia, haur-parkea eta pista jokoa daude.

www.lenbur.com - 943731895 - 943730428 - lenbur01@gmail.com



HEZKUNTZA JARDUNALDIAK

“Autonomia, inizatiba eta sormenaren
lanketa jaiotzetik nerabegarora”

NORA SALBOTX | JAUME FUNES | XABIER TAPIA | ANE ABLANEDO
IÑAKI ARANA | IÑAKI EIZMENDI

Urriak 30 eta 31 · Tafalla

Izen - ematea www.hikhasi.eus-en



Ayuntamiento de
Tafalla
Tafallako Udala